



PSOE 1975-1978 eta subjeto politikoaren aitortpena estatuaren egituraketa konstituzionalean

Mikel Aldasoro Jauregi

Berrogei urteko diktadura eskuindar eta zentralistaren burua ohean hil eta gaur egun indarrean dirauen Konstituzioa ezarri artean, «transizio» izenez ezaguna zaigun aroan PSOEk Estatu espainiarraren lurralde antolaketa eta egitura politiko-juridiko demokratiko baten subjeto politikoaren aitortpenean izandako aldaketa sakona aztertzea da lan honen xede nagusia.

PSOEren bilakaera lerroari atxekitzeko mintegietan erabilitako txostenak, alderdiaren zuzendaritzako kideen idazki eta liburuak, buruzagiek eskainitako elkarrizketak, militanteen prestakuntzarako erabiltzen ziren materialeak, hauteskundeetarako egitarauak, *El Socialista* alderdiko aldizkaria eta testigantza zuzenak izango dira euskarri nagusiak.

1. Berrikuntza eta norabide aldaketa XII. Biltzarrean, 1972

XII. biltzarra arte lurralde antolaketaren inguruan PSOEk egindako ibilbideak Estatu barruko herrien ukapena izan zuen ardatz. Mende bateko bizitzak, milaka kideen ekarpenak eta egindako hainbat borrokak paragrafo batean jaso ezin diren nabardurak eskatzen dute zuztarra dena osatzeko, zera, PSOEk segida eman ziola tradizio liberaleko espainiar abertzaletasun porrokatuenari. Egia da 1896an herrien autodeterminazio eskubidearen aldarrikapena berea egin zutela biltzarrean. Egia ere 1918ko biltzarrean Estatuaren antolaketa federalaren aldeko ebazpena onartu zutela eta II Errepublika garaian estatutuen osaketetan parte hartu zutela, baina horrek ez dio indarririk kentzen PSOEn espainiar abertzaletasun handiari: lehenego urteetatik Estatuko herrien nortasuna aldarrikatzen zutenen etsai porrokatuenak izatetik nortasun ikurra egin zuten, burujabetasun arrastorik txikiena ere ezabatuz Espainiaren batasun zatiezinarene lotuko dute autonomia («hondar administratibo hutsa» zioten) bai XX mendeko bigarren hamarkadako loraldi autonomikoan bai II Errepublikan, non gainera estatu federalaren aurka aritu ziren «estatu integrala» indarrean jartzeko. Lerro historiko honekin eteten duen azken katabegitik abiatuko dugu lana.

Barruko egitura politikoak ahulak zirelarik, II. Errepublika garaiko atzerriratu sozialistak maisu eta ikur baziren ere, orain ordea, zaharrei zor zieten begirunea ahaztu gabe berrikuntzaren premia azpimarratuko dute Estatu barruko militanteen belaunaldi berriek. Alderdiaren ohiko iharduera funtsean zegoen arazoari irtenbidea emateko gai ez izanik, bi aldeen arteko luebakia zabalduz joan zen PSOE zartatu arte, luebakia are sakonagoa bihurtu zen, giro erabat mindua eta guzti.¹

1972ko abuztuaren 13, 14 eta 15ean bildu zen PSOEn XII. biltzarra Toulousen, historikoen Batzorde Eragileak onartzen ez zuen batzarra eta beraz «alderditik kanpo» jotzen zituen bertara hurbildutako militanteak. Biltzarraren ondotik bakoitzak bereari eusteko komenigarriak zitzaizkion datuak kaleratzen zituen: historikoen alderdiaren gehiengoak haiekin zegoela zioten eta berritzaileek alderantziz noski. Kredentzialen Batzordeak² atzerriko 49 sekziok (1.187 afiliatukin) eta barrukaldeko beste 11 (2.216 afiliatukin) abuztuko biltzarrean parte hartu zutela baieztatu zuen.

Tirabirak gora-behera, denborak aurreratu orduko argi geratu zen balantzak berritzaileen alde egiten zuela: alderdiko sekzio gehienek (ia guztien atxekimendua, bereziki barnean), *Le Socialiste* aldizkariaren kontrola eta II. Internazionalaren onarpen ofiziala («historikoen alderdia» Internazionalatik kanpo uzten zuena). Beraz, hurrengo urtetan bi taldeek PSOE siglak bere egin nahi izango badituzte ere nahasmena eraginez, benetako PSOE abuztuko biltzarrekoa izango da. Bestea, pixkanaka pixkanaka ahulduko da, kide batzuek taldea utziko dute, beste batzuek PSOerekin bat egingo dute harik eta 1977 aldera erabat desegin arte (hauteskundeetara ere ez ziren aurkeztu).

Esan bezala, PSOEn zuzendaritza egituretan ez ezik, sozialisten diskurtso politikoan ere ildo eraberritzailea ezarri zuen XII. biltzarrak. Ildo eraberritzailea batipat hiru esparrutan: oposizioarekin jorratu beharreko elkarlan estrategian, klase borrokaren inguruko kontzeptuen berreskurapenean eta Estatu espainiarraren lurralde antolaketan.

PSOEn XII. Biltzarretik hasita, txosten nagusian «Nazionalitate Iberikoei» izenburu-

pean eskaintzen zaien atal berezia azpimarratu beharreko aurreneko zantzia izango da. Bertan aitortuko dute Alderdi Sozialistak «nazionalitate desberdinen borrokaren azterketa zuhurra burutu eta, epelkeriak albo batera utzita, irtenbide koherentea eman beharrean dagoela». Beraz, ordura arteko politika zeharka bada ere kritikatzear gain (zuzendu beharreko epelkeri eta kontraesanak ekartzen baitituzte gogora), jarrera irekiagoa plazaratzen dute gaiaren azterketa oinarrian.

Azterketa asmo horri jarraiki PSOEn XII. Biltzarrak esplizituki onartuko du «baldintza eta benetako nazionalitateen errealitatea hortxe dagoela: catalana, galizarra, euskalduna... Kanarietako kideen egitismo nazionalistak ahanzi gabe». Aitorpen honek ez du ezkutatu «separatismo erasokorrak» sozialistengan sortzen duen kezka, baina Holandako sekzioak aurkeztutako enmendakina aurrera ateraz, XII. Biltzarreko sozialistek nazionalitateen aldarrikapenak «zilegiak» ere bazirela agertu zuten, eta ez bakarrik «bidezkoak», hasierako txostenak zioen bezala. Biltzar amaierako «Jarrera politikoa» agirian ere hala zehaztuko dute: «Nazionalitateen arazoak duen garrantziaz jabetuta, PSOEk nazionalitate iberiko desberdinen aldarrikapen zilegiak babestuko ditu». Sozialistek Biltzarrean agertuko duten beste kezka hauxe izango da, nazionalitateen arazoarekin diskurtso hertsia garatuz gero lurralde hauetako langileriarengana iristeko zailtasun larriekin topo egingo dutela.

Ezin uka «nazionalitateen aldarrikapen zilegiak» onartzean ia eskubide demokratikoen pare jartzen direla eta, beraz, PSOEn baitan aldaketa egon badagoela. Dena den, Estatu espainiarraz ari direnean sozialistek oraindik ez dute gehiegi argitzen zein den nazionalitateen eskubide horien mamia.

1-a. PSOEn alternatiba frankismoaren aurrean: haustura politikoa eta oinarri demokratikoen zehaztapena.

Azken urtetan erregimen frankistaren arazo eta kontraesanen biderkaketak ezinbesteko aldaketa iragartzen bazituen ere, Alderdi Sozialistaren zuzendaritza berriak aldaketaren hurbiltasunaz erabateko konbentzimendua izango du lanean hasten den une beretik. Alta, ez dira sozialistak aldaketaren gertutasuna atzematen duten bakarrak eta eragile politiko desberdinek (baita frankismoaren ingurukoek ere) euren mugimendu eta proposamenak publiko egiten dituzte. Testuinguru honetan, petroleoaren gorakadak eragiten duen krisi ekonomikoaren haritik sortutako langileen mobilizazioen orokortzeak eta ustez erregimenaren iraunkortasuna bermatu behar zuen Carrero Blancoren aurkako atentatuak izugarri trinkotzen dute eztabaida politikoa, erregimenaren aldaketa-moldaketa ardatz duen eztabaida politikoa.

Erakunde frankistetatik zein oposizioko zenbait alderditatik proposatzen ziren erregimenaren moldaera edo garapen desberdinen aurrean, beti ere bilakaera hitzartua-kontrolatua izatearen zentzuan, PSOEk erabateko hausturaren aldeko apostua egingo du. Era guztitako adierazpenetan berretsiko duten jarrera izango da. Sozialismoaren eraikuntza bidean aurreko erregimenarekiko haustura erdietsi beharra aipatuko da *El Socialista*³ aldizkariko idazkitan eta Suresnesen 1974ko urrian batzartu zen PSOEn XIII. mintegiaren adierazpen politikoan. Hausturaren proposamen politikoaren edukinean sakonduz, 1974ko urriko *El Socialista*⁴ aldizkarian argituko da hitz horrekin aurreko erregimenaren «erabateko likidazioa» adierazi

nahi dela. Berrero ere Suresneseko XIII. biltzarreko erabakitara itzuliz, bertan ezartzen denez frankismoarekiko haustura ezinbesteko konpromezua izango da gainontzeko oposizio taldeekin edozein elkarlan garatzeko. Are gehiago, PCEk bat egin ez zuenez 1974ko abendua-ren I Irako oposizioko talde desberdinekin⁵ (ETA erakundea barne) batera deitutako errepre-sioaren aurkako greba orokorra deialdiarekin, Alderdi Sozialistak kritika gogorak jaurtiko ditu komunisten eta CCOOen aurka, besteak beste erregimen frankistaren sektore aurre-rakoienek prestatzen ari ziren moldaketa egitasmo hitzartua babestea leporatuz. Hausturaren irizpide lerro berean, urte haietan Borbondarren Juan Carlos I.ren inguruan lantzen ari ziren frankismoaren aldaketa eredu desberdinen aurrean erabateko aurkakotasuna adieraziko du PSOEk, *PSOE: la ruptura democrática* liburuan jasotzen denez «Borbondarraren eskuhar-tzeak erregimenaren jarraipena bermatzen duelako». Arrazoi bera aipatuko dute aurrerago «edozein irtenbide Juancarlista» errotik errefusatzeko.⁶

Sozialistek demokraziari atxekitzen dioten edukina hainbat idazkitan agertzen bada ere, adibide hau aukeratuko dugu, hots, haustura demokratikoa ardatz hartuta, 1974ko irailean PSOEn Batzorde Eragileak *El Socialista* aldizkarian kaleratutako idazkian behin behineko gobernu batek derrigorrez eta unean bertan hartu beharreko neurriak zehazten dituena. «Espainiako Alderdi Sozialista Langilearen adierazpena» du izenburua eta ezinbesteko neurriak hauek dira: preso politikoaren askatasuna, erantzunkizun sindikalak garbitu eta eskubideak onartu, oinarritzko askatasun demokratikoen aitortpena, (alderdi politikoak eta sindikatuak osatzeko zein greba egiteko eskubidea e.a.), diktaturak lapurtutako ondasunen itzulera, hauteskunde askeen deialdia, nazionalitate iberikoen eskubideen onarpenean oina-rritutako ekinbide konstituziogilea, langileen soldaten hobekuntza eta iruzurraren aurkako neurriak. Catalunyako federazioak⁷ 1974 uztaillean biltzar aurreko eztabaidetan kaleratutako agirian, alde batetik nazionalitateen autodeterminazio eskubidea onartzen da eta bestetik askatasunez elkartutako federazioaren aldeko apostua egiten da, sujeto politikoaren erabate-ko aitortpena beraz. Are gehiago, porposamenak dio kontraesan nabarmena dela askatasun demokratikoen alde azaltzea eta berriz autodeterminazio eskubidea ukatzea.

1974ko Suresneseko XIII biltzarraren erabaki-ebazpen politikoak sei puntu ditu. Lauga-rreren atalean, krisi egoeraren aurrean PSOEn irtenbidea proposatzen du, haustura demokra-tikoa, «hots, askatasun sistema eta herriaren burujabetzan oinarritutako gobernu eredia ezartzea». Zalantzarik gabe, adierazpenaren punturik garrantzitsuena bosgarrena da, bertan zehazten baita «Espainian demokrazia birrezartzeko ezinbestekoak diren neurriak»: preso politiko eta sindikapean askatasuna, Diktaturaren erakundeen deuseztapena eta askatasun demokratikoen onarpenean zein babesa. Askatasun hauen barruan aipatzen ditu: alderdi politikoak osatzeko askatasuna, sindikatuak erakundetzeko askatasuna, manifestazio eta greba eskubidea, diktaturak ebatsitako jabegoen itzulera, hauteskunde askeen deialdia eta nazionalitate iberiko guztien autodeterminazio eskubidearen onarpenean.

«Nazionalitate eta lurraldeen inguruko» erabakiak autodeterminazio eskubidearen izaer-ran sakontzen du adieraziz Estatu espainiarra osatzen duten nazionalitateen arazoaren irtenbideak «erabateko autodeterminazio eskubidearen onarpenean» duela oinarria. Esaldi berean zehazten du zer den delako eskubide hori, «nazionalitate bakoitzak Estatu espainia-rreko gainontzeko nazionalitateekin izan behar duen harremana aukeratzeko askatasuna izan

dezan». Eskubide demokratikoetatik abiatuta, PSOEek berezko egitasmoan federalismoaren aldeko apostua luzatzen du.

Suresneseko erabaki-ebazpen politikoan eta nazionalitateen inguruko adierazpenean Estatuko lurralde desberdinen sujeto politikoaren aitortza aztertzen denean jarraitzen den arrazoibideak ez du kontraesanik nazioarteko ponentzian aipatu gaian jorratzen den ildoarekin. Nazioarteari dagokionez, XIII. biltzarrek Hirugarren Munduko nazio askapenerako mugimenduen aldeko abegikotasun orokorra adierazten du eta Saharako arazo zehatzaren inguruan «kanpoko inongo eskuhartzerik gabeko autodeterminazio prozesu baten alde» azaltzen da. Era berean, autodeterminazioari erantzuten ez dion bestelako irtenbideak errefusatzeko Alderdi Sozialistak.

PSOEren XIII. biltzarreko erabakiak oso zehatzak ziren, baina egoera politikoa erabat nahasia, hortaz, alderdiak behin eta berriro azpimarratu beharko publikoki bere jarrera. Hala berresten du behintzat 1975ko martxoko *El Socialistak*⁸ argitaratzen duen artikuloak. Bertan aipatzen denez, muturrera jo duten taldeek, «ustezko iraultzaileek, eskuindarrek, demagogek eta enparauk etengabe jaurtikitzen dituzten mezuek gehi krisi egoerak sekulako noraeza sortzen dute». Egoeraren aurrean PSOEren jarrera zein den azaltzen du argiro; gutxienez ondorengo ezaugarriak izango dituen zuzenbide estatua: adierazpen askatasuna, preso politikoaren askatasuna, greba eskubidea... eta «nazionalitate guztien autodeterminazio eskubidearen onarpena» zerrendatzen ditu jarraian.

Bada, XIII. biltzarrean erabakitakoari jarraiki, PSOERentzat lehen aipatu ditugun oinarriko eskubide demokratikoen onarpena ezinbesteko baldintza izango da edozein talderekin elkarlana abiatzeko. Adibiderik esanguratsuenak «Elkargune Demokratikorako Plataforma» dugu. Oposizioko hainbat taldek bertan elkartuta,⁹ PSOE barne noski, bat egiten dute hainbat eskakizunen inguruan, hauen artean autodeterminazio eskubidearen onarpena. Uztailean kaleratu zuen agiriaren bosgarren eta seigarren puntutan azaltzen denez Elkargune Demokratikoak «nazionalitateen autodeterminazio eskubidea onartzen du» eta jarraian haustura demokratikoa gauzatzen den une beretik herrialde desberdinetan autogobernu erakundeak osatzeko apostua egiten du, hau guztia Estatu federala egituratzeko bidean.

1974ko urriko biltzarretik aterako den Batzorde Eragilea eta PSOEren buruzagi esanguratsuenak izango direla alderdiaren zuzendaritzan transizio aro guztian ez ezik, baita ondorengo urteetan ere: Felipe González Márquez, *Isidoro*, Juan, Enrique Múgica Herzog, *Goizalde*, Andrés, Ernesto, Hervás, Paco, Eduardo López, *Celso*, Otilio, Jose Maria Benegas, *Txiki* eta Juan Iglesias.

2. Francoren heriotzaren ondotik: zaharra nola berritu edo berria nola sortu, hortxe koxka

Alderdi Sozialistak 1974ko urrian Suresnesen buru zuen biltzarra da aztertu dugun azkena eta, estatututan agindutakoak eskatu bezala, hurrengo biltzarra 1976ko abenduan elkartu zen. Hala ere, denbora tarte honetan garrantzi handiko gertaerak emango dira Estatuko bizitza politikoan eta PSOEek egunegun hartu beharko du jarrera hauen aurrean.

Egitura eskasak eta bitarteko gutxi zituen PSOEek kezka bizia zuen edonon sortzen ari

ziren ezkerreko alderdi txikiekin, zatiketekin, alderdi adarrekin, lurralde alderdiekin, iritzi taldeekin eta antzekoekin. Sozialistek ehun urteko ibilbidea zuten eta baita gizartearen zati handi baten oroimen historiko ezkertiarra, baina euren ahuldadeen jakitun, atzematen zuten oposizioaren aitzindaritza zuzentzeko ezkerreko alderdien hizki zopak ez ziola mesederik egiten, are gutxiago horietako alderdi asko «sozialista» izendatzen zirelako. Zurrunbilo horretan lekua egin eta PSOEn izena goratzeko oso garrantzitsuak izango dira nazioarteko komunikabideen bultzada (bestelako alderdiek ez zuten halako aukerarik inondik ere) eta PSOE siglei etengabe erantsi nahi izango dioten sinesgarritasun historikoa, esperientzia, nazioarteko buruzagien babes sendoa, Estatuaren zuzendaritza hartzeko gaitasuna eta bultzatutako proposamenen oreka bideragarritasuna.

Bere burua eztabaidaren erdigunean kokatu nahian PSOEk¹⁰ gainontzeko taldeak kritikatuko ditu, «batzuentzat erregimenaren ahultasunak irtenbide erradikalenak eskatzen ditu. Beste batzuentzat estatu kolpearen aukerak jarrera bareagoa gomendatzen du». Gero bere estrategia argitzeko; «benetako Zuzenbide Estatu batek onartu behar ditu gutxienez»: alderdi politikoen askatasuna, askatasun sindikala, adierazpen eta bilkura askatasuna, greba eta manifestazio eskubidea, alderdi politiko zein sindikatuei ebaitatutako ondasunen itzulketak, hauteskunde deialdia eta «nazionalitate iberiko guztien autodeterminazio eskubidearen aitortpena». Eta ohartarazten du aipatu «oinarrizko askatasunak mugatzea asmo duen edozein azpijoko politiko salatuko duela PSOEk».

PSOEk oposizioko beste alderdi batzuekin garatzen duen elkarlanaren emaitzetako bat da 1975eko ekainean osatu zen «Elkarguneko plataformaren» osaketa, non PSOE alderdiaz gain beste hamaika erakunde eta elkartek ere parte hartzen zuen.¹¹ Oinarri oinarrizko konprometua da sinatzaileena, «haustura demokratikoa eman arte» iraungo duena eta beraz une honetatik aurrera talde bakoitzak bere bidea jarraituko du, oinarrizko hitzarmen taktiko-estrategikoa beraz. PSOEk parte hartu eta txalotzen duen hitzarmen taktikoak aipamen zehatza egingo dio Estatuaren lurralde antolaketari laugarren puntuan, «autodeterminazio eskubidearen onarpenean» sinatuz, «batzuek estatuaren antolaketa federalean zehazten dutelarik» (beste zenbaitzuk autonomi estatutoak eskatuko dituzte).

Plataforma sortu eta hilabete baten buruan aurrekoaren soka bereko beste agiri bat kaleratuko dute hitzarmenaren oinarriak berretsi eta hainbat xehetasun gehituz.¹² Bigarren agirian adierazten dute «autodeterminazio eskubidea onartzea eta autogobernu erakundeen sorrera haustura demokratikoa ematen den une beretik» lortu beharreko gauza dela eta Estatuaren egituraketa federala proposatzen du.

2.a. Ezkil hotsekin batera lekua hartzera

Faxisten burua 1975eko azaroaren 20 hil eta Francok berak aukeratu Borboitarra koronapean eta Franco bera bezain frankista zen Arias Navarrok Gobernuaren aginte makila eskuan zuela ekin zion erregimenak etorkizunari. Gidoiak aurreikusi bezala.

Baina bestelako gidoiak nonnahi ziren. Ondorengo astetan PSOEkoko erro berari eutsi zioten haustura demokratikoaren proposamenak inoiz baino indar handiagoa zuela berretsi eta, aldaketa susmo perspektiba berean, Estatuako Gobernu berriaren programa aitortpenak

zein ministro batzuek etorkizun labor bateko egitura politikoaren antolaketan «lurraldeen autonomia» izan beharko zenari buruz egindako aurrerapenei erantzunez, PSOEek agiri berri bat kaleratuko du 1976ko urtarrilean¹³ esanez «aipatu nazionalitateen arazoaren irtenbidea erabateko autodeterminazio eskubidearen onarpenean oinarritzen dela, zeinak esan nahi duen nazionalitate hauek erabateko askatasuna izango dutela Estatu Espainiarra osatzen duten gainontzeko herriekin garatu beharreko harremanak aukeratzeko». Adierazpenaren argitasuna zigilatu nahian edo, PSOEren komunikatu honek kaxa artean jartzen du esaldi guztia eta ondoan, parentesi artean «Nazionalitate eta lurraldeei buruzko adierazpena, XIII. Biltzarra).

Horixe zen bi errealitateetako bat, nazionalitateena, bestea lurraldeak ziren. Hala dio komunikatuak, «PSOEek onartzen du lurralde desberdinak daudela (ingurune geografikoa, egitura ekonomikoa, historia etabarren eraginez...), zeinei autonomia aitortu behar zaien. Hots, gobernu erakundeak osatzeko aukera aitortu behar zaie». Oso bestelakoa da «lurraldeen» izaera. Sozialistek diote desberdinak direla, bai izaeran, bai eskubidetan. Ez diete herri izaera aitortzen, ezta sujeto eskubidea ere. «Autonomia bai», baina «gobernu erakundeak osatzeko aukera» ere, baina ez gehiago.

Haustura demokratikoa eta Estatuaren lurralde antolaketaren inguruko oinarri irizpide hauen zurruntasunak ordea laster galdu zuten indarra, antzeko-ordezko baina azken batean beste kontzeptu behazkilo batzuen mesedetan. Urtarrietik aurrera PSOEren diskurtso politikoak nabardura dexente hartzen ditu eta galdera da ea nabardura hauek norabide politikoaren haizeorrazaren aldaketa iragartzen duten ala ez. Izan ere ez da erabateko diskurtso aldaketa, kontzeptuen ordezkapena, ez.

Alderdi Sozialistaren hizpidearen «fintzeak» bat egiten du tempus politikoaren garapean sozialdemokrazia europarraren zubi-elkarteek PSOErekin zuten harreman kuantitatibo eta kualitatiboen indartzearekin, hots, garai honetan zabaltzen da benetan diru iturria eta indartzen da Gonzalezen proiektio publikoa. Era berean, Estatu Espainiarrean Alderdi Sozialista oraindik legez kanpoko izan arren, PSOEek «tolerantzia hitzartuan» jarduteko pribilegioa du (alderdia ez da legala, baina jazarpena oso mugatua da, neurtua¹⁴). Beste alde batetik, kaleko tentsioak (errepresioa, hildakoak, liskarrak, grebak...) gora egiten zuen bitartean, zenbait momentutan sistemarentzat sustengaezina bihurtuko zela irudikatu arte Gasteizen martxoan izandako gertaerak kasu (3 langile hilda, 90 zauritu...), PSOEko buruzagiek hartu-eman zuzenak zituzten bai Gobernuarekin, bai oposozioko gainontzeko alderdiekin erregimenaren bilakera hitzartzeko.

Testuinguru honetan PSOEek denbora berria egokituko dio «hausturari». Demokraziaren ezaugarri ezinbestekoak eta egitismo konstituziogilearen oinarri izatetik erregimenaren ordezkariekin izandako negoziaketen bidez erdietsi beharreko helburuak izatera pasatuko dira. «Haustura negoziatua» eta «haustura dialektiko negoziatua» dira Alderdi Sozialistaren kontzeptu berria. Sozialistek azalduko dutenez¹⁵ ez da botere hutsunerik aurreikusten Estatuaren egituretan eta beraz, orain, bideratu nahi den negoziazio prozesuak «haustura demokratikoan izango du amaiera», «printzipioz» bederen, «edukinetan eraginik izango ez duen negoziazioa». Denborak esango du baietz, aldaketak egon egongo direla, bai epetan bai edukinetan.

«Haustura demokratikoaren» edukinak egosten ari edo egosiko den eltzeko uretan beratzen jarrita daudela islatuko du PSOEn hizkerak. Ageri denez, lehenxeago intoxikazio eta nahaspilaren aurrean oinarizko kontzeptuen esanahia argitasunez zehazteko premiarik ez dute orain sozialistek eta irakurketa anitza-kontresankorra ahalbideratzen dituzten kontzeptuak hobetsiko dituzte. Canarias uharteak aipagai dituen agirian adibidez,¹⁶ PSOEek adieraziko du «lurraldeen arazoari irtenbidea topatzeko beharrezkoa dela hiritarraren bizitza arlo guztiak hartuko dituen marko autonomikoa antolatzea». Beste batean,¹⁷ Catalunyako Consell-ean izandako arazoak tartean direla, PSOEek esango du nazionalitate zein lurraldeen gaiarekin «adimenez jokatu behar dela» eta autodeterminazioaren alde azaldu diren alderdiei ohartarazten die aipatu eskubidea gauzatzeko era zehazteko tenorea dela. Adimenak aholkatuta edo ez, kontua da sozialistek ez dutela argitzen gehiago euren jarrera, hots, Souresnesen adierazi eta urtarrileko agirian berretsitakoari eusten dioten edo, bestela, zertan eragiten duen «adimenez» jokatu behar horrek. Adimenak adimen, esateko franko emango die PSOEkoiei, hori bai gehienetan inboluzio arriskuaz ohartarazi eta indar ultraeskuindar-militarrek Estatuaren lurralde antolaketari buruz zituzten iritzitara (Espainiaren batasun zatiezina) makurtzeko aholkatuz.

PSOEn nagusitasunak arrastoa uzten zuen. 1976ko apirilean bat egiten dute oposizioko taldeen bi elkarte nagusiek, bata Batzorde Demokratikoa (batik bat PCEn inguruko taldeak biltzen zituena) eta bestea Plataforma Elkargunea.¹⁸ Elkarre berria osatu bezain laister iritzi publikoari zuzenduko zaio aldarikapenen berri emateko. Demokrazia erdiestea zen bilgunearen ardatza eta, hizkuntz estilo moldatuarekin bada ere, hein handi batean «haustura demokratikoa» proposamenaren lerro nagusiak jasoko dituzte (indar errepresiboak desegiteko eskaria ez da azalduko). Estatuaren lurralde antolaketari buruz diotena aldiz, hizkuntza estiloaren moldaketa baino haratago iristen da: «Nazionalitateen askatasun politikoen onarpen erabatekoa, bapatekoa eta benetakoa gizarte demokratiko baten eskaeren arabera». «Nazionalitateen askatasun politikoa» kontzeptu zehazgabea bada (k-pluralean gainera), are gehiago «gizarte demokratiko baten eskaeren arabera» gehituta, halako esaldiak ez baitu ezertan ere argitzen arazoaren funtsa, norik zer erabakitzen duen eta zeren baitan. Irakurketa anitz eta kontraesankorreko idazkera ongi hausnartutakoa dela zalantzarik ez dago. Justu bi parrafo aurrerago «giza eskubide eta askatasun politikoei» buruz ari direnean (hauen edukina bai dela ezaguna) «nazioarteko zuzenbideak zehaztutakoak» gehitzen diote, eta ez besterik. «Nazionalitateen» gainean ordea aipatu gabe geratzen dira «haustura demokratikoan» autodeterminazioari atxekitako bi ezaugarriak: erabateko erabaki ahalmena eta nazionalitateen herri izeraren aitortzea. Askatasun politikoa eta gizartearen arabera dira Koordinazio Demokratikoa taldearen zehaztapenak, baina irizpide horien baitan Mugimenduaren Oinarritan Francok ezarritako askatasun politikoa sar zitezkeen bezala, «gizartearen arabera» hori soka bereko Espainiaren batasun ikutuezina ere izan zitezkeen. Besterik gabe «Nazionalitateen askatasun politikoen» kontzeptu irristakorrari nazioarteko zuzenbidearen aipamena edo «nazionalitate bakoitzeko gizartearena» oharra erantsiz gero, gauzak dexente argituko lirake, oraindik irakurketak egiteko aukera egon arren.

2.a.1. Udako eskola: Estatu Espainiarraren batasun ukiezina oinarri demokratikoekin kontraesanean

II. Errepublikaren garaitik Alderdi Sozialistak ez zuen uda eskolik antolatu Estatuan. Frankismoa indarrean zen bitartean burutu burutzen ziren militantziaren prestakuntzarako ikastaro hauek, baina atzerrian, gehienetan Toulousen eta noizbait Parisen. Diktaduraren ondorengo PSOEn aurreneko udako-eskola 1976ko abuztuan egin zen, 16tik 26ra El Escorialen, «tolerantzia hitzartan» eta kanpo proiektio esanguratsuekin. Estatuaren lurralde antolaketa PSOEn baitan lehengo mailako kezka dela agerian geratzen da ez bakarrik militantziaren prestakuntza ideologikorako aukeratutako txostenetan nazionalitateen gaia sartzen dutelako, baizik eta gainontzeko txostenek ere gai honen inguruko aipamen esanguratsuak egingo dituztelako.

Txosten desberdinek agerian utziko dituzte PSOEn «haustura demokratikoaren» edukin eta proposamen politiko zehatzen arteko kontraesanak. Felipe Gonzálezek aurkeztutako «PSOEn Lerro politikoa» txostenean esaten du «Espainia lurralde eta nazio anitzen kontzeptua»¹⁹ dela, hots, Espainian nazio bat baino gehiago dagoela onartzen du. Aurrerago dioenez «PSOEek bat egiten duela munduko edozein bazterretan diharduten nazio askapenerako mugimenduekin».²⁰ Hortaz, PSOEn idazkari nagusiak Estatuaren egituraketa federalaren aldeko apustua egin arren, «Espainiako nazioek» zein hauen aldeko ekintzaileek munduan lekurik izatekotan lasaitzea zuten 1976ko abuztuan, Gonzálezek berak esana baitzien PSOEn begikotasuna zutela.

Gregorio Peces Barbak ohartaraziko du «Sozialismoa eta zuzenbide estatua» ponentzian «eskaera nazional zilegiak onartuko direla, baina ezinezko demagogietan erori gabe».²¹ Tira, Peces Barbak aitortzen du nazioak egon badaudela eta haien eskakizunak zilegiak direla, ez du argitzen ordea «ezinezko demagogien» funtsa zertan datzan edo «demagogia» horiek estatuaren izaera demokratikoarekin zein «haustura demokratikoaren» edukinekin duen lotura.

Boyerrek ere ukituko du lurralde antolaketaren gaia «Egitarau ekonomiko baterako azterketak» txostenean. «Autonomia eskubidea»²² onartzen du salbuespen moduko ohar bat erantsita, «gizatalde eta gizabanakoen independentziak muga argi batzuk ditu». Boyerrentzat ez dago ez naziorik, ez nazionaliterik, ez lurralderik. Ez ditu aipatu ere egiten. Agerikoa den gauza bakarra da mugak egon badaudela, eta «argiak» gainera. Nor den autonomia eskubi-dearen jabe edo zeintzu diren gizataldearen ezaugarriak (futbol taldea, drogazaleak, modistak, ikasleak, ijitoak, katalanak...) ez dakigu. Ez dakigun bezala muga «nabarmen» horiek fisikoak, demokratikoak, ekonomikoak, metafisikoak, erligiosoak edo bestelakoak diren.

Internazionalismo sozialistaren oinarritik abiatuta, Pierre Guidoniren (PSFko kide konbidatua) aurkezpenean, nazioarteko egoera aztertzen duen txostenean aipu labur bat sartuko dute onartuz gobernu sozialistentzat kontraesan bat dela «mugimendu independentista kolonialak zanpatzea».²³ Honaino txosten orokorrek lurralde antolaketaren inguruan aztertutakoaren orrazketa. Seigarren txostenak dagokigun gaia hartzen du ardatz nagusi bete betean eta egile desberdinen ekarpenekin dago osatuta. Edukinak eta kontraesanak, zaletasun guztiak asetzeko modukoak.

Nazionalitateen autodeterminazio eskubidea epealdi konstituziogilearen ezinbesteko oinarrietako bat izan behar zuela aldarrikatuz «Espainiaren batasun zatiez» konstituzionalaren babesle amorratuak izateraino PSOEek zeharkatuko duen bilakaera-guruzpideko otoi nagusienetako bat irakatsi nahi izango die Gómez Llorentek kide sozialistei. Bi hitz ditu errekuak: «inboluzioa, beldurra», hots, militarren aurreko ikara oinarri konstituziogile eginda.

Gómez Llorenteren azterketaren arabera «estatu faxista zentralizatu batetik estatu demokratiko federalera igarotzeak arriskuan jartzen du demokraziaren birrezarpena»²⁴ eta, beraz «eskaera hauek aurrera eramateko era arretatsua atzeman beharko da». «Zuhurtziaren» esanahia aurrexego zehaztuko du buruzagi sozialistak: «Ahalik eta askatasun gehiena eman [...] beti ere egitura politiko demokratikoaren egonkortasuna arriskuan jarri gabe». PSOEren ikuspegi ezkertiarren «Espainiako langileen batasunak» Estatuaren lurralde antolaketan izan behar duen gauzapearen alde azalduko da Llorente, baina klasisten artean klase interesak babesterakoan aurreneko direla frogatzeko zehaztuko du «sozialisten klase ikuspegiaren baitan ezin dugu alaiki ontzat eman muturrera eramandako edozein formula liberal [...] guretzat demokrazia klase interesak defendatzeko tresna delako». Sozialista honentzat Estatuaren egitura demokratikoak bi irizpide ditu, «egonkortasunaren» muga du lehenengo, eta klase estrategiarena da bigarren muga, bien pean hartuta geratzen delarik. Hauxe litzateke Gómez Llorenteren formula: arreta eta askatasunaren artean arreta lehenengo, egonkortasuna eta demokraziaren artean egonkortasuna lehenetsi, demokrazia eta klase strategiaren artean bigarrena nagusi.

UGTko kidea den Rubio Llorenterentzat adibidez «herri espainiarrak, bere osotasunean»²⁵ erabaki behar du antolaketa batua edo federalaren artean. Gero aztertu beharreko nabardurak zerrendatzen ditu (konpetentzien banaketa, federazioak antolatzeko irizpideak, botere banaketa...) inongo irtenbiderik azaldu gabe, baina edonola ere argi dago Rubio Llorenterentzat «Espainian» ez dagoela Espainia ez den beste naziorik ez nazionaliterik. «Espainia» zein «herri espainiarra» termino kategorikoak dira, aldeztuak ematen dituenak, eta ez «Espainiaren» ezaugarriak ez lurraldeen ezaugarriak aipatzen ez dituenek ezin jakin zein den bakoitzaren izaeraren gakoa eta elkarren arteko aldea. Oinarri kategoriko berekin norbaitek Euskal Herria, Catalunya, Galiza edo frankismopeko bestelako herri baten izana aldarrikatzen duenean sortuko dira arazoak, baina arazoa ukatzen den artean kezkarik ez.

Pais Valenciá-ko Joaquin Arzaga Rosek Estatu Espainiarraren inguruko proposamenak utzi eta zehaztasunera pasatuko da «herri balentziarrari autodeterminazio eskubidearen inguruan erabakitzeke erreferendum»²⁶ eskatuz. Aurrerago zehaztuko du «Estatu Espainiarrereko Gorte Federalean onetsia izango dela» autonomia estatutua, baina honek ez dio indarra kentzen Pais Valenciá-ren erabateko burujabetza aitorenari, autodeterminazioari. PSOEren baitan atzematen dituen «bi mutur baztertuak, espainolista eta independentista»²⁷ kritikatu, Joaquin Arzagak gaineratuko du bere proposamena zentzuzkoa eta moderatua dela.

Azpimarratzeko moduko beste idazki bat Manuel Soto Ferreirena da. Galizar honen iritziz gobernu autonomoa behin behinekoa izango da, «herri galizarrak gainontzeko Estatu Espainiarrarekin izango dituen lotura moduak erabaki arte».²⁸ Beraz, galizar herriak eraba-

kiko du lotura mota autodeterminazio eskubidea aitortzen zaiolako. Manuel Sotoren txostenean bada beste gauza deigarri bat, galizarren jatorri azalpena. PSOEk euskal abertzaletasuna deitoratu eta erasotzeko iraunkorki erabili du arrazakeriaren leloa historia osoan zehar. Bada, asmo ona edo txarrarekin baina edonola ere inork zuzendu gabe, galizarrak irakatsi nahi izan ziren El Escorialen bildutako kide sozialistei «galizarrak arraza zeltan jatorria duen etnia direla».²⁹

Norbaitek nazio zapalkuntza azpimarratu nahi izan bazuen hori Antonio Borderías izan zen. Bera, Aragoiko federazioko burua, ez da zurikeritan galtzen: «Badakigu gurea ez dela lurralde kolonizatu bakarra, baldin eta kolonizatu gabeko lurralderik existitzen bada...».³⁰ Hauxe bai dela kontzeptu berria sozialisten ahotan. Ez du zehaztaperen haundirik baina tamainako zapalkuntza askatzeko gutxien gutxienez deskolonizazioa beharko, autodeterminazioa, eta gatazkarik izatekotan kasko urdinak deitu.

Azkenik, Euskal Herriko federazioaren izenean Gabriel Urralburuk aurkeztutako atala jasoko dugu, berak «Euskal Herrirako egitarau-alternatiba» deituko diona. Bi irizpide azalduko ditu oso zehatz eta oso argi lurralde antolaketaren inguruan: bata, Estatuaren egituraketa federala izango dela eta lurralde bakoitzari autonomi estatutua egokituko zaiola. Bigarrena, Euskal Herriko estatutuak autodeterminazio eskubidea bermatu behar duela.

Sozialisten zuzendaritzak oposizioaren buruan ikusten zuen alderdia eta boterea epe labur ertainean eskuratzeko aukera handiekin. Alde zuten komunikabideen bultzada, dirua, frankismoaren aldaketa-moldaketa gauzatzeko Gobernuak behar zuen laguntza, alde ere komunisten satanizazioa eta oraindik zirauen jazarpena, inkesta itxaropentsuak... Testuinguru honetan, Alderdi Sozialistak diskurtsoaren norabidea aldatuko du baina aurreko urtetako propaganda-pedagogia lerro guztiarekin bapatean eteteak sinesgarritasuna nabarmen kalte-tuko zukeenez (are gehiago bizi zen erregimenaren aurkako tinkadura-aldarrikapen giro iraunkorrean), aldaketa mailakatua hobesten dute. Zehaztasun eza, esanahi anitza, kontraesanak, inboluzio arriskuaren ohartarazpena aldarrikapen demokratikoak jeisteko oraindik demokraziarik ere ez zenean, zenbait eskaeren deskalifikazio-ridikulizazioa («alaiki..., muturreko..., ezinezko..., mugak...»), «haustura demokratikoaren» birformulazio saiakera (ezinbesteko baldintza izatetik negoziazioen helburuan igarotzea) eta estatu erantzunkizunaren aipua soka bera jarraitzen dute.

2.b. Une batez ezpatak zutik. XXVII. biltzarra

Franco hil ondorengo aurreneko biltzarra 1976ko abenduan burutu zen, PSOEren XXVII. Alderdi Sozialistaren biltzar honek aparteko garrantzia du batetik Francoren heriotzak bide eman zion bilakaera guztiaren testuinguruan PSOEren kokapen politikoa zehaztuko duelako militante guztien partehartzearekin, eta bestetik hilabete pare bat lehenago Suarezek aurrera ateratako «Erreformaren legeari» Alderdi Sozialista alternatiba mahaigaineratzeko behar-rean aurkitzen delako, jarrera zehatza hartu beharrean aurkitzen dela alegia, eta honek hein handi batean zeozer proposatzera bultzatzen ditu.

Baina PSOEkoek lerro politikoa kokatzeko baino zerbait gehiagorako nahi zuten XXVII. biltzarra. II. Errepublikaren garaitik Estatu Espainiarrean aurrenekoz ospatzen zen biltzarra-

ri, artean oraindik PSOE legeztatu gabe zela, bedeinkapen guztiak atxeki zizkioten printzipioz alderdiaren barne ekitaldia zena PSOEren gizartearen aurreko aurkezpen publikoan bihurtzeko. Ez nolana hiko aurkezpena ordea, PSOEek izen ona eman nahi zion alderdiari, arduratsua, epe labur-ertainean Estatuaren kudeaketa eskuratzeko gai zela islatu eta Estatuaren aurrean indarra irudikatu nahi zuen. Hori dela eta, Europaren aldean azterpen-isolamendu konplexuan bizi zen Estatu Espainiarreko gizartearen aurrean, legez kanpoko «tolerantzia hitzartuan» ziharduen PSOEek Europako buruzagi sozialista garrantzitsuenak elkarri zituen³¹ biltzarrera komunikabideen arreta areagotu eta aipatu irudikapen guztiak indartzeko. Era berean, nazioarteko komunikabideek egindako jarraipenarekin eta Felipe Gonzalezen etengabeko proiektioarekin eskenografia oso bat prestatu zuten biltzarra oholtzaren gainean aurkeztu aurretik, aurkeztu bitartean zein aurkeztu ondoren.

Edukiei dagokienez berriz, PSOEren Batzorde Eragilearen txostena izan asmo zuen biltzarraren ardatza. Horretarako, alde zuzenetik zabaldu zen kide sozialisten artean azken hauei denbora emanaz zuzenketak edo bestelako proposamenak aurkezteko. Batzorde Eragilearen txostenak berretsiko du PSOEek ez duela erregimenaren moldaketarik onartzen, erabateko haustura dela haien egitasmoa. Horrek zuzen zuzen lotzen du bai aurreko biltzarreko proposamenarekin, bai Suarezek «Erreformaren legearen» inguruan deitu erreferendumaren aurrean PSOEek abstentzioaren alde egin zuen deialdiarekin. Orduan PSOEek azpimarratu zuen bozka emateko aukera huts hutsa ez zela aski estatuaren izaera demokratikoa bermatzeko eta beste zenbait baldintza ezinbestekoak zirela irizten zion (hausturaren edukinak). Alderdi Sozialistaren Batzorde Eragileak beste kutsu bat agertzen du mintegian aurkeztu txostenean, hots, moldaketarik ez, haustura da proposamena, eta estrategikoki delako haustura horren edukin gauzapena transizio epe baten helmugan kokatzen dute. PSOEren buruzagien txostenaren arabera etengabeko mobilizazioa ezinbestekoa den bezala, balizko negoziazioan (eta eman ematen ari dira) haustura demokratikoaren mugarriak ez daude inolaz ere auzitan. Lehenago esan dugunari jarraiki, negoziazio mahai gainean epeak zein hausturaren metodologia leudeke. Edukinei dagokienez berriz, biltzarreko txostenak PSOEren Batzorde Nazionalak 1976ko uztailaren 10ean hartutako ebazpena jasotzen du, non zehazten den: «haustura demokratikoak esan nahi du herriak askatasunez aukeratutako batzar konstituziogilea osatzea, joera demokratiko guztiak, salbuespenik gabe, parte hartzeko aukera izango duten hauteskudeen bidez». Gauzak horrela esanda ulertu behar da PSOEren Batzorde Eragileak atzera egitea proposatzen diola biltzarrari, «haustura demokratikoaren» betiko formulazioa dexente murriztu baitu (1972ko biltzarrean onartu, 1974koan berretsi eta *El Socialista* aldizkarian, alderdien agiritan edo buruzagien hitzalditan hainbat alditan kaleratutakoa).

1974ko biltzarretik egindako bidetari erreparatuta, Alderdi Sozialistaren zuzendaritzak mutazioaren hirugarren fasean sartu du «haustura demokratikoa» kontzeptua. Aurreneko fasean PSOEek ezinbesteko jotzen zuen «haustura demokratikoaren» edukin guztiak gauzatea demokrazia erdiesteko eta erregimenaren jarraipena-moldaketa bidera zezakeen edozein jarduera errefusatzen zuen itzalpeko hitzarmenak kritikatu. Bigarren fasean haustura ez da izango epe konstituziogilearen ezinbesteko oinarria, negoziazioaren bidez (erregimenarekin negoziatuz noski) lortuko den emaitza baizik eta horrek edukinetan inongo eraginik

izango ez duela esan arren, aurreko irizpideen gardentasuna galtzen da. Hirugarren fasean azkenik, «alderdi guztiek parte hartuko duten hauteskunde askeak» ospatzea da kaskalaldiaren ondotik PSOEko buruzagientzat negozi ezina den edukin bakarra. Antzeko koherentzia lerroarekin epaituko du PSOEren Batzorde Eragileak oposizioko taldeekin jorratutako elkarlana.

Orain artekoak balantze atalari dagozkio. Hala eta guztiz ere, ezin uka Estatuaren lurralde antolaketaren inguruan PSOEren Batzorde Iraunkorrek proposamen argi goa azaltzen diola XXVII. biltzarrari hiru «oinarrizko irizpidetan» laburtuz proposamen-erabakia: bata, errepublika federalaren aldarrikapena. Bi, autodeterminazio eskubidea onartzen duen konstituzio federala. Eta hiru, autonomi estatutoen gauzapena Konstituzioa eta autodeterminazio eskubidea kaltetu gabe. Zehaztaper bat gehiago, «Izaera instituzionala» izenburupeko azpi-atalean diotenez lurralde antolaketaren oinarrian «elkarte politiko burujabeak daude», gardenago haizea.

Dena den, gauza bat da irizpide argiak ematea eta beste bat irizpide horienganako lehialtasunari eustea, oso bestelakoa ikusiko dugunez. Estatu barruko nazionalitateen autodeterminazio eskubidearen alde on guztiak errepasatu eta gero: klase borroka, langileriaren askapena, aldarrikapen zilegia, ezinbestekoa... ezinarekin egingo du topo Batzorde Eragilearen txostenak, «ezin izango dugu hitz egin estatu batzuek osatutako nazioari buruz». Justu zenbait lerro aurrerago esandakoaren ukapen borobila, eta borobila borobiltzeko arrazoia «eztabaidagarria izateaz gain, erabateko aurkakotasuna sortzen du sektore garrantzitsutan».

2.b.1. Ezinen gaineratik, militanteak autodeterminazioaren alde, argi eta garbi

PSOEren buruzagitzak baino jarrera askoz argiagoa erakutsi zuen militantziak Estatuaren lurralde antolaketaren inguruan. Zehatzago izateko, orohar PSOEren zuzendaritzaren lerro politiko epela zuzendu zuen XXVII. biltzarrak estuki lotzen bitzaio «haustura demokratikoaren» ezinbesteko edukin guztiei zein iraultza sozialistaren asmoari.

Bai atal orokorrean, bai nazionalitateen atalean federazioek aurkeztu proposamenak zehaztaper desberdinekin baina beti ere Estatu barruko herrien autodeterminazio eskubidea onartzearen aldekoak dira salbuespen bat izan ezik: Utrecht-eko federazioak aurkeztutakoa. Utrecht-ekoek bereziki kezkatuta agertzen dira Estatuko ia lurralde guztietan indarra hartu duelako autonomiaren aldarrikapena, hainbeste ezen «arazo hau molde irrazionalak hartzera ere iritsi da». Arrazoizko senak bestela agintzen die, «egungo baldintzak ez dira egokiak autonomia eskaera asetuko duten Estatuaren erakundeek moldaketak aintzat hartzeko». Aldarrikapen irrazionalen aldean arrazoia goraiatu, Utrecht-eko federaziokoentzat ordea beldurra da arrazoi arrazoizkoena, zehatzako esanda sosegu otzana aholkatzeko neurria. Izan ere delako aldarrikapenek ez dute lekuri, ez zilegiak ez direlako, «Gobernuaren zein Ejerzitoaren sektore liberalenak erradikalizatuko lituzkeenez, desabantailan utziko gintuzkeelako» baizik. Eta liberalenak erradikalizatuz gero... atera kontuak besteak. Kontuak eginda: «badakigu zein puntutarainoko sentiberak diren arazo honekin oraindik boterea eskutan dutenek». Halakoan aurrean, Utrechtokoentzat beldurra askatasuna baino arrazoizkoagoa.

Erregimenaren aginte makila zein esku sentiberetan pausatzen zen ikusita ere, federazio gehienek herrien autodeterminazio eskubideari eusten diote irmotasunez. Arabako federazioaren proposamenak «haustura demokratikoaren» edukin guztiak bildu eta sakontzen ditu. Lurralde antolaketari dagokionez, zera da proposamena: «autodeterminazio eskubidearen onarpena Estatu Espainiarreko nazionalitate guztiendako». Estatu demokratiko batean ezinbestekoak, oinarri oinarritzkoak diren eskubide zein askatasunen erdi erdian kokatzen du berriro autodeterminazio eskubidea.

Bruselako federazioaren proposamenak adierazten du uzkur zirela PSOEn buruzagien ihardueraren aurrean eta XIII. biltzarreko (1974koa) ebazpen politikoa bere osotasunean (autodeterminazioa, haustura demokratikoa...) berrestea proposatzen dute ohartaraziz gainera erabaki haiek guztiak «osotasun bat» direla, hots, ez dagoela lehenetasunen sailkapen edo bestelako zatiketarako tarterik. Antzeko hitzak erabiltzen ditu Galizako federazioak «PSOEK azken biltzarrean nazionalitateen inguruan hartutako ebazpena berretsi eta haien autodeterminazio eskubidea onartzen du irtenbide federala proposatuz», da plazaratzen dutena.

Autodeterminazio eskubidea Estatuaren oinarri demokratiko ezinbestekoen artean kokatzen du Logroñoeko federazioak ere. «PSOEK, berriro, demokrazioaren alde garatutako borrokan jarraitzeko premia berresten du» eta prest azaltzen da bat egiteko «ondoko helburuak onartzen dituztenekin: preso politiko eta sindikalen askatasuna [...], indar errepresiboen deuseztapena [...], askatasun sindikala, adierazpen askatasuna [...] hauteskunde askeen deialdia [...] Estatu Espainiarreko nazionalitate guztien autodeterminazio eskubidearen onarpena, [...]». Logroñoeko federazioaren arabera askatasun hauek guztiak eskuratzea izango da sozialismoaren eraikuntzarako abiapuntua eta era berean «gizarte sozialistak borobildu eta sakonduko ditu».

Nafarroako taldeak aurkeztu txostenak azpimarratuko du «epe konstituziogilean beharrezkoak direla zenbait askatasun», aurreko paragrafotan aipatu direnak eta hauen artean «autodeterminazio askatasuna». Gehi autodeterminazioari buruzko eranskina: «edozein egoera demokratikotan eska daitekeen gutxienezkoa da, horregatik ez dugu sartzen transizio egitarauan». Parisko federazioak aurrekoen lepotik buru egiten du. PSOEn XIII. biltzarreko erabakiak berrestearen alde azaltzen da, «haustura demokratikoa» du helburu gero «herriaren borondatean oinarrituko den Estatu eta Gobernura iristeko» eta «nazionalitate guztien onarpena» ezin dela negoziatu azpimarratzen du.

St. Jean de Valderisles-eko federazioarentzat berriz, autodeterminazio eskubidea oinarri demokratikoa ez ezik, PSOE alderdiaren ikur bereizletako bat ere izan behar du, hots, «autodeterminazio eskubidea bereziki babesten duen indar gisa aurkeztuko da alderdia Espainiako herriaren aurrean». Bizkaitarrek bi ardatz egokituko dizkiote egoera demokratikoa erdiesteko ezinbestekoa deritzoten hausturari (demokratikoa hau ere), «askatasun sindikala, indar errepresiboen deuseztapena [...]» batetik, «autodeterminazio eskubidearen onarpena» bestetik.

PSOEn XXVII. biltzarraren plenoak onartu eta biltzarraren erabakien azken txostena idazterakoan oinarri izan zen Madrileko federazioaren proposamena aztertuko dugu «orokorrak» sailean bildutakoekin amaitzeko. Madrileko federazioaren idazkiaren aurreneko ata-

lean PSOEn izaera ideologikoaren zertzelada nagusiak berresten dira: marxismo ezkertiarrena, klase borroka zein klase alderdi nortasuna besteak beste eta testuinguru politikoaren aurrean aldarrikatzen du «gizartearen eraldaketa iraultzailea dela irtenbide bakarra». «Haustura demokratikoaren» edukinen baliogarritasuna berresten du, are gehiago, edozein elkarlan edo negoziatorako ezinbesteko baldintza jarriko du eta «haustura demokratikoa ematen denean» alderdiak hitza hartzen du: «Estatu barruko nazionalitate zein lurraldeen izana onartuz, autodeterminazio eskubidea babesten dugu, haren egituraketarako irtenbide federala mahaigaineratzen dugularik».

Honaino «orokorra» atalean federazioek aukeztu proposamen desberdinak. Nazionalitateen ingurukoan azaltzen direnak soka berekoak dira, eta nahi bada are zehatzagoak oraindik. Bruselako federazioaren idazki laburrak «nazionalitateen inguruan» PSOEk XIII. biltzarrean hartutako erabakiak berrestea proposatzen du. Burgoseko federazioak Estatu barruko herri desberdinen autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen du eta honen baitan kokatzen du «independentzia eskubidearen» aitortpena.

Ukitu klasistagoa du Gipuzkoako federazioaren proposamenak. Hauen ustez «nazionalitateen zapalkuntza klase zapalkuntzaren» beste atal bat da eta «borrokan diharduten herri desberdinen batasun taktikoaren» beharra azpimarratuko du. Bi oinarri hauetatik ondorioztatzen den proposamenak beste ardatz pare bat ditu: «nazionalitate bakoitzean epealdi konstituziogilea zabaltzea», eta «autodeterminazio eskubidea bermatuko duten autonomi estatutuen» osaketa.

PSOEk Estatuaren lurralde antolaketaren inguruan izan duen jarrera historikoaren azterketa kritikoa murgiltzen da Huelvako federazioaren idazkia. Gogora ekarriko du Internazional Sozialistaren IV. biltzarren ondotik herrien autodeterminazio eskubidea jasotzen zuen erabakia hartu zuela PSOEk 1896ko biltzarrean eta 1918an «Nazionalitate Federatuen Errepublika» mahaigaineratzen zuen ebazpena kaleratu zuela (1960an berretsia...), baina estatutu edo paper arteko erabaki hauek alderdiaren iharduera politikoarekin alderatzerakoan PSOEk aipatu oinarrien garapen «eskasa» eta klase borrokaren «irakurketa ziztrina» gauzatu duela kritikatzan dute andaluzek. Denboran luze iraun duen lerro politiko okerrarekin alderatuz, 1972tik aurrera Alderdi Sozialistak Estatu barruko herrien autodeterminazio eskubidearen aldarrikapena bere egin zuenetik jorratuko duen diskurtsoa txalotzen du Huelvako federazioak.

Penintsularen hegoaldeko ere, Sevillako federazioaren txostenak oso oso antzeko norabidean izango du haizeorratza, atzekoz aurrera adierazia baina. Konstituzio batek arautuko duen «Errepublika Federala» izango da proposamenaren azken emaitza. Eta hau bideratzeko, «haustura demokratikoa» lehenengo, ondorengo urratsa «lurralde autonomo egitura izan nahi dutenei autodeterminazio eskubidea onartzea» da.

Bizkaiko federazioak «autodeterminazioa estatututan bermatu behar dela» adieraziz ia hitzez hitz berresten ditu Gipuzkoakoak botatuko proposamenak eta Zürichekoak berriz, Burgoskoen pare jarriko da, hots, autodeterminazio eskubidearen onarpena eskatu eta «muturreko kasuan independentzia» onartzeko asmoa azaltzen du. Hori bai, ponentzia gehienetan bezala, Zürichekoak ere estatu federalaren alde egingo du, zehatzago, «Errepublika Iberikoa, non lusitarrak txertatuko diren».

2.b.2. *PSOEren alternatiba: herrien autodeterminazioa eta iraultza sozialista*

Eztabaida, liskar eta beroaldi guztien ondotik, PSOEren XXVII. biltzarreko erabakiak biltzen dituen azken txosten-liburuak³² argi uzten du autodeterminazioaren oinarri demokratikoa onartzen duen PSOEren alde marxistaren erabateko garaipen harroa. Nahi bada funtsean XIII. biltzarreko leerro politikoaren jarraipena, baina testuinguru politiko oso berezian.

Biltzarreko ebazpen politikoa garrantzitsua izanda ere, «Nazionalitateak» izeneko atal berezi batek jasotzen du Estatuaren lurralde antolaketaren inguruan PSOEk onartu iritzi ofiziala. Ofiziala bi zentzutan, biltzarreko erabakia delako, eta gai hori zehazki duelako ardatz. Honi jarraiki ikus dezakegu XXVII. biltzarreko PSOEk onartzen duela Estatuaren «nazio anitzen errealitate nabarmena», ez dagoela beraz nazio bakarra, bat baino gehiago baizik. «Nazionalitateen zapalkuntzak klase borrokarekin duen harremanaz» jabetuta, Alderdi Sozialistak askatasun ororen aldeko apustu garbia egingo du «langileria nazionalitate zapalduen askatasunaren aldeko borrokan aitzindari» izan dadin konpromezua hartuz. Marxismoa oinarri dutela esan ohi den zenbait adarrek historikoki sustengatutako klase borrokaren irakurketa inperialistazalea eta nazio zapaltzaitetik erabat aldentuko da PSOE. Alderdiaren jarrera «ez dago internazionalismoarekin kontraesanean», ohartaraziko dute lehenengo eta gero berretsi nazioen askatasunaren aldeko borroka lehentasuna dela, «berandutu inolaz ere ez». Hortaz, alderdiaren oinarri ideologikoen proposamen argia: «nazionalitate eta lurralde guztien autodeterminazio askea aldarrikatuko dugu». Kokapen orokorraren ondotik PSOEren biltzarrak Estatuaren antolaketa federalaren nondik norakoak aipatzen ditu. «Estatu espainiarreko herriek» osatuko dute egituraren oinarria eta zuzenbide araudi gorena izango den «konstituzioak autodeterminazio eskubidea bermatuko du». Ez onartu bakarrik, bermatu ere bai. Estatuko herri desberdinetan autonomi estatukoak jarriko dira indarrean baina «konstituzioa eta autodeterminazio eskubidetik» ondoriozta litekeena baldintzatu gabe.

Berriro ere ezkerreko diskurtsotik nazio zapalkuntzaren alde egiten dutenak gogoratu antza, PSOEren biltzarrak zehaztaper esanguratsua erantsiko du «Autonomi, nazionalitate eta lurraldeen oinarri ekonomiko-finantzieroak» atalean ohartaraziz «eskubideen ukapenak elkartasuna arriskuan jartzen duela». Beraz, hankaz gora uzten du balizko klase batasuna nazioen eskubideen gainetik jartzen dutenen leloa, PSOEko militanteek ulertu zutelako nonbait, elkartasunak aske behar duela izan, hots, ez zegoela zapalkuntzapeko elkartasunik.

Jada mintegia amaitutzat emanda Maria Castilla aretoan bildutakoek txaloka ari zirenean, segurtasun zerbitzukoek ikurrin erraldoi bat zabaldu zuten eta biltzar amaierako txaloak zaparrada burrunbatsuan bihurtu ziren. Den dena borobiltzeko, biltzarreko presidentzian zeuden buruzagi sozialistek autodeterminazioaren aldeko pankarta zabaldu eta eskenatokiaren aurrean paratu ziren azken agurra emateko.

3. Erregimenaren inboluzio arriskutik PSOEn barne inboluzioaren gauzapenera, egun bateko tartean

Oinarrizko lerro politikoa argitu bai argitu zuela XXVII. biltzarrak, baina aurretik zegoen zuzendaritzaren oso antzekoa jarri zuten PSOEn buru.³³ Ezbairik gabe, ustez kontraesankorra dirudien gertaera honen alde jokatu zuten komunikabideen bultzadaz eta nazioarteko buruzagien itzalean PSOeko zenbait kidek (Gonzalez, Múgica, Guerra, Benegas...) gizendutako izen onak (heine batean Estatuan bizi zen une historikoaren beraren ondorioz puztuta), alderdi kideen arteko gutxieneko konfiantzak, buruzagi batzuen saldukeriak zein ziria sartzeko gaitasunak, esanahi anitzeko hizpide epelak kontraesanak ezkutatzeko duen abantailak eta alderdi barruan ofizialtasunetik at lehiatzen diren hitzarmen taktikoak.

Azkenean inboluzioa gauzatu zen ta inboluzio prozesua transizioan erregimearen bilakae-raz ari garenean ulertzen den bi zentzutan, forma zein edukinetan. Inboluzio-kolpea PSOEn barne araudiaren lehen mailako erabakiak urratu zirelako eta ideologikoki, inboluzioa ere Alderdi Sozialistak uko egin ziolako biltzarrean erabakitako lerro politikoari erregimen frankistaren sektore atzerakoinen txantaiepeko eskaerak asetzeko.

4.a. Kolpea eta lurreratze masiboa, inbasioa

Esan bezala, XXVII. biltzarra amaitu orduko abian jarri zen inboluzio prozesua. Lehenengo eta behin PSOEn zuzendaritzarekin kritikoen izan ziren militanteen aurkako ehizaldia zabaldu zen eta aparatotik kanpo utzi zituzten aitzakitan oinarritutako zigorrak ezarri (behin behineko militantziatik kanpo utzi, kargutik kendu etab). Ez ziren izan asko militante zigortuak, bai ordea esanguratsuak, Madrilko federazioko historikoen buru eta XXVII. biltzarrean nazionalitate zein marxismoaren ponentzia garaile ateratzea lortu zuen Justo de La Cueva kasu.

PSOeko buruek alderdiaren inboluziorako epe labur-ertain zein luzean erabat estrategikoa suertatuko den kide berrien araudiz kontrako lurreratze-inbasio masiboa gauzatzen hasi ziren. Oztopo nagusia estatutoen 31. artikuloa zen, zeinak jasotzen zuen PSOEn kide berri bat onartzeko ezinbestekoa zela bi militanteren babesarekin aurkeztea herri batzarrean eta azken honen oniritzia jasotzea. Baina estatutoei jaramon egitea ez zen ez sozialisten buruzagien lehentasunen arteko gaia. Aitzitik, aldeko zituzten eragile guztiei ahalik eta atarramendu gehien xurgatu zieten militante berrien uholdeari bide emateko. 1977ko otsailaren 17an PSOE legeztatuta geratu zen erregistroan izena ematearekin batera, hauteskunde ondotik atzematen ziren eserleku, soldata eta kargu berriek (alderdian, udaletan, erakunde publikotan, lurralde erakundetan, Kongresuan...) ehundaka militante erakarri zituen, diktadura ondorengo itxaropen aldiak berez beste batzuk gehiago gehitu zituen, PSOeko buruzagiek ezker-eskuin-goiti-behiti banatu zituzten militante txartelak eta orain bitxikeria iruditu arren, tropel berean sartu ziren izena zuritzeko PSOera hurbildutako zenbait filofrankista.³⁴

PSOeko kide berrien uholdea zenbakitan neurtzerakoan iturri desberdinetan aurkitzen ditugun kopuruak oso antzekoak dira. Argitarapen gehienek diote 8.000 militante inguru

zirela XXVII biltzarren bezperetan. Biltzarreko paper ofizialek 10.000ra igotzen dute kopurua, baina ez da ahaztu behar Madrilgo PSOE-historikoen eragina murrizteko zenbakiak puztu zirela. Jose Felix Tezanos PSOEko buruzagiak (XXXI. biltzarrean aurrera Batzorde Eragileko kide hautatua) ematen dituen datuen arabera,³⁵ 1977ko ekaineko hauteskunderen aurretik 51.552 afiliatu zituen PSOEek, Guntherrek dio 50.000tik gora zirela afiliatuak³⁶ eta Caciaglik aipatzen du 1977ko apirilean 60.000tik gora zirela. Edonola ere, XXVII biltzarrean PSOEek zuen kide bakoitzeko beste bost gehiago zituen sei hilabeteren buruan.

Gora-beherak tarteko, kide berrien uholdea ez da etengo ekaineko hauteskunderen ondotik, ez transizio osoan. Caciagliren datutara itzuliz, 1977 urte amaieran 100.000 kide zituen PSOEek («gehi kuota ez ordaindu arren txartela zuten beste pilo bat»), 1978an kopurua 70.000ra jeitsi bazen ere. Jose Felix Tezanosek 1980an PSOEko kideen artean jasotako inkestak nabardurak izan arren agerikoa da militante berrien uholdea: 1980ko militanteetatik (100.000 inguru) %13ak II. Errepublikan eman zuen izena alderdian, %5ak frankismoan, %7ak Francoren heriotza eta XXVII. biltzarren artean, %25ak XXVII. biltzarra eta 1997ko ekaineko hauteskunderen artean eman zuen izena, azkenik, gainontzeko %49ak ekaineko hauteskunderen ondotik sartu zen alderdian.

4.b. Uholdea aski ez zela, kolpe kateatu-jarraitua

Militante andana berriaren tamainan erreparatuta esan dezakegu XXVII. biltzarren ondotik beste alderdi sozialista bat sortu zela, siglak eta zuzendaritza berdinak izanda ere, alderdiaren gorputza arras desberdina zelako. Alderdian izena ematera bultzatu zituzten arrazoi desberdinei jarraiki, orohar, militantzia berriaren gehiengoa prestankuntza, konpromezu eta irizpide oso eskasekoa zen. Ez zuten alderdiaren historia ezagutzen, ez zuten militante kemenik eta beraz, PSOEn lan iharduerari gehitu zioten ekarpena oso urria izan zen. Buruzagiek nahi zutena. Caciaglik egindako azterketan azpimarratzen du «afiliazio inkontrolatua eman zela prestakuntza eta antolaketa arazoei erantzun gabe. Afiliatuen hazkundeak ez zuen alderdia bizkortu eta ez zuen nabarmendu gizarrean zuen irudia».³⁷

Baina PSOEn barne araudia urratuz burututako lurreratze masibo bidezko gorpuz eraldaketa ez zen aski izan Alderdi Sozialistaren norabide politikoaren erabateko zuzenketa zigilatze beharrezkoak izan ziren beste bi kolpe, biak PSOEn estatutuen aurkakoak, biak nabarmen nabarmenak, biak zama ikaragarrikoak.

PSOEek XXVII. biltzarrean zehaztu zituen, ederki zehaztu ere, erregimenaren moldaketaren aurreko estrategia eta estatu egituraketa demokratikoaren ezinbesteko oinarriak. Hori zen alderdiaren erakunde burujabe gorenak hartutako erabakia, lerro politiko ofiziala, indarrean behar lukeen estrategia, estatutuen arabera gutxienez gutxienez bi urteren buruan hurrengo biltzarra ospatu arte.

Edonola ere, egutegiak eta Alderdi Sozialistaren estatukoek agintzen zuten beranduenez XXVIII. biltzarra 1978ko azaroan elkartu behar zela, Konstituzioa bozkatzeko bezperetan hain zuzen. Parada ederra zatekeen epealdi konstituziogilearen inguruan alderdiak bere osotasunean zuen iritzia erabakitzeke. Ez zen paradarik izan. 1978ko uztailaren 1 eta 2an bildu zen Batzorde Federalak erabaki zuen XXVIII. biltzarra 1979ko maiatza arte atzeratzea,

kitto. Nahiz eta estatutoen 34. artikulok argi eta garbi ezarri Barzorde Federalak ezin duela aldatu biltzar bateko erabakia, nahiz eta atzerapena estatutuen erabat aurkakoa izan.

PSOEren azken inboluzio kolpeak eta gainerakoak borobiltzen dituenak ihes egiten du lan honen denbora mugetatik baina laburki bada ere aipatu aipatuko dugu testuinguruaren ezugarri oso garrantzitsuak biltzen dituelako. Alderdi Sozialistaren Batzorde Federalak XXVIII. biltzarra 1979ko emiatza arte atzeratu zuen. Alderdiko militante ezkertiarrenek marxismoaren aldarrikapena aurrera ateratzea lortu zuten eta orduan Gonzálezek dimisioa aurkeztu. Baina nonbait bazterrak ez zeuden PSOeko kideei askatasunez erabakia harrezaten uzteko moduan eta biltzarreko zuzendaritza bildurik zegoela Tierno Galvánen bidez iritsi zen hordagoa: banku nagusiek ez zuten onartzen González ez zen beste idazkari nagusirik (kapitalak atera eta PSOEk zituen kredito zorrak likidatzearekin mehatxatu zuten), Ejerzitoaren Estatu Goreneko hiru agintari nagusienetik bik (Cabeiras salbu) bat egiten zuten bankuen mehatxuarekin. Giro hartan borobildu zen inboluzioa: hautagai alternatiboa izateko asmoa zuen Gómez Llorentek atzera egin zuen eta gestora bat izendatu zen azaroan ospatuko zen biltzar berezia arte, orain bai denbora nahikoa alderdian geratzen zen XXVII. biltzarreko zuztar gorria erabat garbitzeko. XXVIII. biltzarraren bigarren saioan den denak ezkontzen zuen. Gonzálezen irudi mediatikoa erabateko pisu politiko jainkotua bihurtuta, marxismoaren ukoa autobedinkapenaren birtute izendatua eta aparatuko burokrata soldatapekoen gehiengoa militanteen artean.³⁸

4.c. Inboluzio ideologikoa: 1977ko ekaineko etenetik Espainiaren batasun zatiezinen bertsiu autonomiko konstituzionalera

PSOEren buruzagiek diskurtso horia eta esannahi anitzeko berreskuratu zuen XXVII. biltzarra amaitu orduko. Aurreko atal batean aipatu ditugu lerro politiko honen zertelada esanguratsuenak jauzi kualitatibo bat emango dute ekainaren 15eko hauteskundeen ondotik (horitze norabide nahasgarri honetan autodeterminazioaren aldeko hitzak ere izan ziren, 1977ko udaberrian burutu zen PSE-PSOEren I biltzarra kasu, hori bai, salbuespenak). Oso esanguratsua da uztailearen 17ko «El Socialistaren» aldizkarian, «Haustura eman da» iragaritzen zuen. Alta, XXVII. biltzarreko «haustura demokratikoaren edukinetan erreparatuta... hamarnaka preso politikok espetxean jarraitzen du, alderdi politiko batzuk legez kanpo, aparato frankista bere berean, autodeterminazioa ez da inolaz ere epe konstituziogilearen oinarri izango etab. Beraz, hauteskundetan 6.039.840 bozka bildu zituen PSOE buru belarri murgilduko da mutazioaren hirugarren epealdian, bat egingo du estatuaren bilakaeraren legitimazioan eta, lurralde antolaketari dagokionez, konstituzioaren Espainiako batasun zatiezinen aldeko apustua izango da ipar orratza. Benetan hautsi zena zera zen, azken biltzarrarekiko lotura. Ondorengo konzeptutan gauzazen da PSOEren inboluzio ideologikoa PSOEren buruzagien hitzetatik jasota:

Autodeterminazioa. XXVII. biltzarraren amaieran herrien autodeterminazioa estatuaren lurralde antolaketaren oinarri behar zuela esan zuen Ramon Rubialek (14 urte zituenetik PSOeko kidea, 19 urtez espetxetan egona, alderdiko lehendakaria, Espainiako Senatuko lehenakarioidea eta Euskadiko Kontseilu Orokorreko lehendakaria izango zenak) oso

bestelako irizpidea azaltzen du 1978ko udaberrian eskainitako elkarrizketa batean.³⁹ Herrien oinarrizko eskubide demokratikoa zena «arazo semantikoa» baino ez dela esatearekin konpontzen du auzia buruzagi sozialistak. Gaizki ulertze bat nonbait, zeren Rubialek azaltzen du «desberdindu behar dela gobernura iristekotan egingo genuela agindutakoa eta gauden lekuan, oposizioan, egonda egin dezakeguna».

Elkarrizketaren hasieran arazoa semantikoa bazen, arazoa bera desagertzen da behe-rago oposizioan zein espetxean zaildutako militante sozialistaren ebazpen salomonikoarekin: «ekainaren 15a autodeterminantea izan zen eta diputatuen ganbara konstituziogilea da gaur eta, autodeterminazioa bezala, hiritarren borondatearen menpe dago». Bai autodeterminazio eskubidearen paradigma bitxia Rubialena, geroxeago onartzen baitu «ezaugarri demokratiko guztiak ez zituen prozesu batean parte hartu» dutela. Adibidez, Rubialek kezka du autodeterminazio eskubidea onartuz gero (egon da 15-Jan edo ez, edo ze arraio horrenbeste autodeterminazio) agian «besteek» ez dutelako errespetatuko balizko etorkizunean gehien-goak estatu federalaren aldeko erabakia, edo «gero independentziaren alde ez gaudenok aurkakoa bozkatzeko aukera izango ez dutela» eta... zalantzak zalantza, erabakia hartzeko eskubidea ukatu.

Batasun zatiezina autonomiaren bertsioan.

«Espainia, batasun patua unibertsoan» katixima frankistaren arau gorena zuten eta zorrotz gauzatu zen konstituzio berriaren oinarritan «Espainiaren batasun zatiezinaren» idazkerarekin. Ideologo frankistek «batasun patua» unibertsoaren gora-beheretatik salbu utzi nahi izan zuten antzera, konstituzio berriaren idazketan parte hartu zuten ordezkari sozialistek aukera aske eta borondate demokratikoa baino haratago jarri zuten «batasun zatiezina».

Gorteak zabaldu orduko Erregeak ohartazi zuen pulpitotik: «lurraldetako errealitate ugaria onartuko da Espainiaren batasun eztabaida ezina sendotu eta aberasten duten heinean».⁴⁰ Onartzekotan aurrera, bestela... Ejerzitoa (ejerzito frankista desegin gabea, erantzunkizunik argitu gabea eta frankismoan karrera egindako militarrek zuzenduta), Konstituzioaren moldaketa... ez zuen ba konstituzio demokratiko batek bere baitan aukera guztiak bermatu behar? Hori ere sozialistek zioten. XXVII. biltzarrean. Ekainetik aurrera «batasun zatiezinaren» aitzindariak izan ziren.

1977ko maiatzaren 22ko *El Socialista* adizkarian Felipe Gonzálezek azaldu zuen Alianza Popular alderdi eskuindarrekoek Espainiaren batasuna eta Ejerzitoaren inguruan esandakoak «zerikusi dexente duela aldaezin irizten dioten frankismoaren oinarrizko erro mugiezinekin». PSOEren «batasun zatizein» konstituzionalaren bigarren abizena «autonomikoa» izango da. Bigarren abizena eta aurrenekoaren menpekoea noski. Hots, PSOEren «autonomiak» «batasun zatiezina» esan nahi du, eta alderantziz gauza bera, eta ondorio guztiekin.

Autonomia bai, baina nolako autonomia ere zehazten du Peces Barbak,⁴¹ batzorde konstituziogilean PSOEek duen ordezkari gorenak: «ez da inolaz ere onartuko Euskal Herria eta Estatu espainiarraren arteko hitzarmenik Estatuaren burujabetzaren kontzeptua haustea suposatuko lukeelako». Kontzertu ekonomikoei buruzko mahainguru batean PSOEren jarrera azaltzen hasita Carlos Solchagak⁴² adierazi zuen «oinarrizko baldintza gaindiezinak» zirela «sistema ekonomikoaren batasuna, autonomien arteko elkartasuna eta eskemen

orokortasuna». Aurrerago zehatzago, «pribilegioak, ezta itxuretan ere». Eskubideak eta pribilegioak gauza bera ez direla bistan da.

«Espainiaren batasun zatiezinare» aldeko zaldunkeria frankismoen oinordekoei aurrea hartzea lortu arteko sugarra amorratuarekin. Arias Salgado UCDko buruak *Interviú*⁴³ aldizkarian gogora ekarriko du konstituzioaren zurruntasunaren merituen zati bat PSOERI dagokiola, izan ere Salgadoren ustez UCDkoek nekez onar zitzaketzen Estatuko herri batzutatako abertzaleen eskaerak «are gutxiago PSOEko diputatu askok EAJren presioaren aurreran amore ez emateko eskatu zigitenean».

Epe konstituziogilea erakunde ofizialen zeharko azken txanpan zela Felipe Gonzálezek Kongresuan egindako hitzaldian⁴⁴ laburbildu zituen lurralde antolaketaren irizpide konstituzionalak. Konstituzioa «Espainiaren batasunaren bermea zen», aurrerago, «ez dago independentismo aukerarik». Ez da lege berme gorenarekin asetzen eta iragana garbitu nahi izango balu bezala berrartzen du gaia gero eta esaldi zorrotzagoekin: «ez orain, ez inoiz [...] inoiz ez dugu zalantzarik izan Espainiaren batasuna defendatzerakoan». Hortan ere, sozialistak aitzindari. Gauzak argi beraz, eta jada autonomia hitza bera gehiegixkoa iruditzen zaiolako edo, beste konzeptu oraindik epelagoa asmatzen du buruzagi sozialistak, zera, «*estado regionalizado*»⁴⁵ –estatu lurraldetua [sic?] bat izan beharko lukeela.

Askatasunen aurrerakoitasun ezkertiarra aurrerakoikeri eginda

Askatasuna, berdintasuna, elkartasuna, garapena... ezkeraren diskurtsoari lotutako konzeptu preziatuenetakoak dira. PSOEko buruzagiek ere ez dituzte albo batera utziko aipatu ideiak. Hori bai, beti askatasunen neurriak «batasun zatiezina» gainditzerik ez zuela zioen keinu-makurra zuzendu ezinik berezko estilo-eskola egin arte eta hitz zurixkenetatik pixka bat aldenduz gero kontraesan funtsezkotan korapilatua.

Sagarren kontakizunaren antzera, galdera edozein izanda ere, erantzuna beti batasun zatiezina helburu, herrien ukapena edo pareko zerbait. Nahi izan gabe beharbada baina Maturanak⁴⁶ ederki lotzen ditu «Haustura demokratikoa» izandakoaren bi oinarriren ukapena idazten duenean «indar errepresiboak desegitea eskatzen dutenen aurrean [...] guk berezitasun ekonomiko-administratiboak proposatzen ditugu». Beraz, izatekotan «berezitasunak», nork eta desegin gabeko indar errepresiboek zaindatuta epe konstituziogilearen hastapenetik bertatik.

Enrique Múgicak⁴⁷ «nazionalisten» aurka egiten du arrazakeria eragotziz. Buruzagi sozialistarentzat «autonomia» da «herri baten askatasun kolektiboaren adierazpena». Eta, askatasunen zale amorratu bizia izanik nonbait, askatasuna eta sozialismoaren artean aukeratu behar izatekotan nahiago duela aurrenekoa. Baina herriei dagokienez aldiz, ez die uzten ez erabateko askatasunik, ez erabateko aukerarik. Autonomia, burujabetza ez. Sozialismoa eta askatasunaren artean askatasuna lehenengo, baina agerikoa da «batasun zatiezina» aipatu bien aurretik dituela.

Eskubideekin ere tupust sozialistek. «Autonomia eskubidea», «berezitasun eskubidea», «eskubide historikoak» eta antzekoak aipatuko dituzte inoiz eransteke utzi gabe burujabetzik eza esan nahi duten «konstituzioaren barruan», «batasun zatiezina» edo «konstituzioaren arabera» gehigarriak baino oinarriak, abiapuntuak. Deigarria sozialisten hizpidea: eskubi-

deak gora, eskubideak bera, hango eskubideak eta hemengo eskubideak... zertarako eta nazioarteko zuzenbideak jasotzen duen bakarra, hots, herrien autodeterminazio eskubidea, errotik ukatzeko. Nazioarteko zuzenbidearena ez zen bezperako gauza. Munduko II. Gerra-tearen ondoren eratu berri Nazio Batuen Erakundearekin (NB) batera autodeterminazio eskubidea herri kolonizatuei bakarrik zuzendurik balego bezala berrinterpretatu zuten potentzia garaikideek. NB-en kartak bi moldetan interpretatzen du autodeterminazio eskubidea; bata: estatu bakoitzak bere sistema sozial, ekonomiko, politiko eta kulturala libreki hautatzeko eskubidea; bestea: herri orok duen Estatu gisa eratzeko eskubidea edo/ta beste estatuarekin elkar egoteko formulak libreki aukeratzeko eskubidea (55.1 art). 1966. urtean NB-en bitartez sinaturiko eskubide zibil, sozial, politiko eta ekonomikoei buruzko bi nazioarteko itunetan, autodeterminazio eskubidea sekula baino gardenago agertzen da: «Herri guztiek dute autodeterminatzeko eskubidea. Beronen izenean herriek erabakitzen dute libreki beren estatus politikoa eta libreki ere finkatzen dute beraiei dagozkien garapen ekonomiko, sozial eta kulturala» (1.1 art). Hildo beretik, 1975-ean Helsinkiko Deklarazio-aren Azkeneko Aktan –bere 8.oinarrian– autodeterminazio eskubidea onartzen da.⁴⁸ Herri kolonizatuei soilik aplikagarria omen zen teoria aitzaki politikoa baino ez zen beraz.

Gonzalezek munduaren «joera supranazionalak» aipatuko ditu Espainiako kongresuan eta Benegas «zenbait kontzeptu zaharkituri» buruz mintzatuko da⁴⁹ autodeterminazioan erreparatuz. Ikuspegi mundialistan ordea ez du lekurik nazioarteko zuzenbideak, munduaren garapenaren orain zehatzean sozialisten giza eskubideekiko konpromezuak, zapalkuntza guztien aurkako mundu guztiko langileen elkartasuna eta sozialismoaren balio iragangaitzak zaharkituta geratu omen.

Konstituzioaren neurriko klasismoa

Sozialistek batzuetan euren poza azaltzen dute⁵⁰ «langileriarengan gero eta sustraituago dagoelako autonomiaren aldarrikapena», beste batzuetan,⁵¹ adibide eta guzti, (Asturias) arrazoituko dute autonomi zabalak mesede egiten diola klase borrokaren azkartzeari eta Felipe Gonzálezek berak adieraziko du Gorteetan⁵² sozialisten helburua «zapalkuntza guztiak [...] gainditzea» dela.

PSOEren XXVII. biltzarren irakurketa sasimarxista bitxia egiten du Luis Gómezek⁵³ (Kongresuko lehendakartzarako PSOEren hautagaiak) eta, egokieraz baliatuta, eskuineko indarrak kritikatzeko ez direlako gai «oinarri autogestionarioak eta masen partaidetza» onartzeko. Asturiasen autonomismoak klase borrokan eragin duen bultzada aipatu ondoren argitzen du «autonomiaren gaia testu konstituzionalaren zati banaezina izan behar duela». Hara!, berriro sozialisten urrezko ekuazioarekin topo: autonomia konstituzioaren testutik banatuezina, eta Espainia batasun zatiezina konstituzioaren oinarri. Zaziezina izan gabe ezin izan, hori da hain zuzen PSOEkoentzat klase borroka azkartze autonomikoaren mugak adierazteko era bat. Badira gehiago.

«Autonomia Andaluziarentzat [...] klase borrokaren barruan eta ezin da sasideszentralizazioekin horitu», aldarrikatzen dute sozialistek lehenxeago aipatu aldizkariaren ale berean. Beste batean,⁵⁴ Catalunya arazo bereziak konpontzeko autonomia eskatzen dute «kapitalismoaren aurkako borroka batuarako» deia luzatzearekin batera. Bi adibide hauetan bezala

sozialistak klase borroka zein autonomiari buruz ari direnean eranskin banaezinak dituzte «barruan», «baitan», «batasunean» eta antzekoak.

Klase borrokarekin zerikusi zuzena duen «zapalkuntzen aurkako» balizko ekina «Espainiaren batasun zatiezinarene» beste euskarri bat izango da sozialistentzat. Zapalkuntzak gainditzeko zentralismo zurrunaren bidea erakutsiko dute. «Lurralde diskriminazioaren amaiera [...] autonomia maila formalean besterik ez [...] lurralde arteko zapalkuntzarekin amaitzeko...»⁵⁵ batasun zatiezina izango da sozialisten irtenbidea, edo argudioa, edo aitzakia. Batasun zatiezinarene zio askatzailea azpimarratu nahi duten kontzeptu berriak sortuko dituzte. Batean, esan bezala, lurralde arteko zapalkuntza bada, bestean Estatu barruko kolonialismoa deskubritzen dute. «Extremadura berez lurralde kolonizatua da eta Madrid, Barcelona eta Baskongaden explotazioaren menpe dago».⁵⁶ Herrien autodeterminazio eskubidea ukatzeko bada, PSOEkoek esango dute kontzeptu zaharkitua dela eta gehienez jota herri kolonizatuei dagokiena, baina Espainiaren batasunaren alde egiterakoan aldiz, hara non topatzen duten Estatuan bertan errealitate koloniala.

PSOEren diskurtso klasistari eman dakiokkeen sinesgarritasun guztia eta gehiago emanda ere, buruzagi sozialistek azaltzen duten bezala klase borroka bigarren mailako jomuga da «Espainiaren batasun zatiezinarekin» alderatuz gero. Enrique Múgicaren hitzetan: «botere legegiletik edo Ejerzitetik ideia beraren alde egiten dugu, Espainia, guztion aberria».⁵⁷

Bi ertzak, erdigunea eta orekaren teoria

Horiek dira sozialisten erdigunearen ertzen bi adibide esanguratsu. Ertza batean batasun frankista eta regionalizazio deskafeinatua, bestean⁵⁸ «terrorismoaren txantaia onartezina», erdi erdian, erradikalismotik at, zentzuzkoaren eredu, PSOEren autonomia, «Espainiaren batasun zatiezinarene» alde sozialistak bat eginik ejerzito frankistarekin. Lanaren txukuntasuna ez zapuzteko PSOEko lehendakaria zen Ramon Rubialek⁵⁹ adierazpen askatasunari uko egiteko aholku demokratiko eta zentzuduna luzatzen die zenbait alderdiri esanez hobe dela «independentzia hitza ezabatzea» legeztapena errazteko. Horrela bai erdigunean.

Inboluzio arriskua eta demokrazia

Aipagai ditugun atal guztiek dute elkarren arteko lotura baina orain aztertzen ari garenak bereziki aurrekoarekin, orekaren teoriarekin alegia. Diktadorea hil eta Konstituzioa indarrean sartu arteko denboran (gerora ere jarraituko du noski) behin eta berriro mahaigaineratzen den arazoa da inboluzio arriskua. Sinesgarria, benetakoa izateko moduko ezaugarri guzti guztiak betetzen zituen egoerak.

1977ko ekaineko hauteskundeen ondoren Gonzálezek «haustura eman dela» esan arren, sozialisten baikorkeri aurreratuenaren gainetik ere agerian geratuko da errealitatearen gordintasuna. PSOEren buruak esandakoarekin kontrajarriz, 1977ko abuztuaren 7ko *El Socialista* aldizkariak onartzen du «herriak kontrolatzen ez dituen eremuak daudela» eta «persona berdinak, antzeko postutan jarraitzen dutela». Batzuetan etsipen arrastoa agertzen bada ere, beste batzuetan sozialistek harrotasun ukitu batekin adieraziko dute ez diotela inori eskatu demokrata berriaren *pedigri-a*. Hori, lehengo faxistei demokrata izendapenaren erabailera baimentzea, omen PSOEek demokraziaren eraikuntzari egindako ekarpenetako bat.

Rubial ere ez zen egoera demokratikoaz oso konbentzituta egongo esan zuenerako⁶⁰ «sozialistak ez zirela hain tematiak izango [...]», hots, «hogeita hamaseian eman zen egoeraren antzekoa ez emateko zenbait aldarrikapen behin behinekoz alboratu behar badira, egingo dugu». Hortaz, epe konstituziogilea ez zen hain demokratikoa, ez. Baina, 1936an gertatutakoarekin alderatuz, orain sozialistek ez zioten oztopo larriegirik jarriko faxisten irizpideen nagusitzeari, oraingoan sozialistak prest baitzeuden aldarrikapen demokratikoei uko egiteko beranduxeago aipatu aldarrikapenak berreskuratzeko hitzaren truke.

Eta Guda Zibila sahiesteko eta odol isuria ekiditeko berez helburu gizatiarra den heinean taktika politikoaren ikuspegitik zenbait aldarrikapen demokratikori uko egitea zuritu badezake ere, PSOEren buruzagitzaren bilakaeraren haritik ondorioztatzen da «inboluzio arriskuarena» eskaerak baretzeko zuhurtasun irizpidea izan baino gehiago, sozialistek erabat mesedegarria suertatu zitzaizela bere egina zuten «batasun zatiezinare» aurrebaldintza konstituzionala finkatzeko. Batzuetan ez diote horrenbeste garrantzirik ematen zuhurtasunari eta argiro azaltzen dute⁶¹ «ezpata hotsa politikaren arlo guztietan nabari denez», eragin baikorra duela jarrerak malgutu eta kontsentsua lortzeko orduan. Lurrean antolatutako gaiari dagokionez badakigu zeren inguruan ematen den kontsentsua, «batasun zatiezinare» inguruan hain zuzen.

Estatu federalaren bidean, agur estatu federalari

Estatuaren antolaketa federala PSOEren tesi historiko bat zen ia ia alderdia sortu zenetik. Berez eta huts hutsean aldarrikapen federalak izan dezakeen irakurketarako malgutasuna aintzat hartuta, jakinda «Espainia autonomikoaren» eredu juridikoaren parekotasunez teoria arras desberdinak daudela, hala ere PSOEdo buruzagiek onartu onartzen dute konstituzioa ez dela federala. Felipe Gonzálezek berak Kongresuan⁶² egindako hitzaldian azaltzen du: «ulertu dugu ez dela aldarrikapen federalzalearen unea», eta aurrerago ahalik eta irakurketa baikorrena eginez gaineratzen du «PSOEren Estatu federalaren eredura asko hurbiltzen da». Gonzálezentzat epe konstituziogilea ez bazen une egokia estatuaren lurralde egituraketaren inguruan PSOEk zituen egitasmoak kaleratzeko... arrazoietan sakondu behar (mehatxu militarra, batasun zatiezinari eutsi nahi izatea...).

Abiatu aipatu lekutik eta, bidean, derrigorrezko zenbait pasaleku xenda «Espainiaren batasun zatiezinare» galbide izan ez zedin. Benegasek⁶³ eskainitako elkarrizketan guzti guztia ederki jasota. PSOEren XXVII. biltzarreko aldarrikapen federalari buruz harrotasunez mintzatu ondoren, Konstituzioa egitura federalera iristeko bidea dela gaineratzen du. Baina herrien burujabetza eskubidearen ukapena beste oinarria dela aditzera emateko «nazionalitate» ez dagoela deskubritzen du. Ehun urtez «estatuko lurralde eta nazionalitatei» buruz mintzatu da PSOE, bada orain buruzagiak dio «gure oinarria da euskal herria izan badela, baina ez nazionalitatea». Azken batean, Konstituzioak oinarri federalik ez duela onartzeaz gain, PSOEdo buruek balizko garapen federalaren ezaugarriak zehazterakoan argi uzten dute herriek ez dutela burujabetza eskubiderik izango. Horrek, VIII artikuloa, batasun zatiezinak eta enparauek berdin berdin diraute hasieran, amaieran zein erdian.

1. Miguel Peydro, *Las escisiones del PSOE, 1921, 1972* liburuak eta *Le Socialiste* aldizkariak ederki jasotzen dute alderdiaren belaunaldi eraberritze garapenean gurutzatu ziren kritika, irain, gezur, iseka, salaketa eta bestelakoak, giroaren mikaztasunaren adierazle argiak.
2. *Congresos del PSOE en el exilio. Volumen II. Archivos históricos*. Editorial Pablo Iglesias, Madrid, 1981, 180. orrialdea.
3. Gerra ostetik *Le Socialiste* izenburupean argitaratu zen aldizkariak *El Socialista* jatorrizko izena berreskuratuko zuen 1973ko ekainaren 14tik aurrera.
4. Alderdi Sozialistak *PSOE: la ruptura democrática*, PSOE, Secretaría de Información y Prensa, 1976, liburuan bildu eta argitaratu zituen 1974ko urritik 1976ko maiatza arte *El Socialista* aldizkarian argitaratu ziren artikulo garrantzitsuenak.
5. Hauek ziren greba deialdia luzatu zuten taldeak: Espainiako Mugimendu Komunista, ORT, ETA V, ETA V-Liga Komunista Iraultzailea, UGT eta PSOE.
6. Bi aipamen horiek esandako liburuaren 15. eta 109. orrialdeetatik jaso dira.
7. 1974ko irailearen lehenengo hamabostaldiko *El Socialista* aldizkarian argitaratua.
8. *PSOE: La ruptura democrática*, 54. -55. orrialdeak.
9. 1975ko uztailerako *El Socialista* (*PSOE: La ruptura democrática*, 93. orrialdea), jasotzen du hilabete berean burutu bileran parte hartu zutela Euskadiko Langileen Batzordeak, Euskal Kontseiluordea (EAJ, ANV, Euskaldiko Batzorde Sozialista eta Federazio Herritar Demokratikoa), Ezkerreko Demokrata Kristauak, MCE, ORT, Alderdi Karlista, Galizako Alderdi Sozialdemokrata, Catalunyak Berrantolaketa Sozialista eta Demokratikoa, Espainiako Gizarte Batasun Demokratikoa, Valentziako Batasun Demokratikoa, UGT eta Catalunyak Elkargune Demokratikoa. Azken honek eta Federazio Herritar Demokratikoak ez zuten agiria izenpetu nahi izan.
10. *Haustura Demokratikoa*, 54 orria.
11. Sinatzaileak: Euskal Herriko Langile Batzordeak, Eusko Kontseilu Ordezkarria (EAJ, ANV, Euskadiko Goi Batzorde Sozialista), Ezkerreko Demokrazia Kristaua, MCE, ORT, Alderdi Karlista, Galizako Alderdi Sozialdemokrata, PSOE, Catalunyak Berrantolaketa Sozialista eta Demokratikoa, Espainiako Batasun Sozial Demokratikoa, País Valenciá-ko Batasun Demokratikoa eta UGT. (H.D. 93. orria).
12. Aurreko sinatzaile guztiez gain, oraingoan CNT, STV eta Euskadiko UGT ere azalduko dira. (Ibidem. 98 orria).
13. Ibidem. 181. orria.
14. Atxiloketak, manifestazioen aurkako eta isunak egon bazeuden, baina erabateko jazarpenetik oso urrun (PSOE egoitzak zabaltzen hasi zen). Beste gertaera bitxi bat jaso zen 1975eko abenduaren 8an sozialistek Pablo Iglesiasen heriotzaren urteurrena ospatzera Madrilgo hilerria joan zirenean: den dena poliziz jositako zegoen eta gogor oldartu ziren militante sozialisten aurka. Hantxe zen baten aurka izan ezik, PSOEren segurtasun zerbitzuen scanerrak atzeman baitzuen polizi buruaren agindua: «*Al morritos no lo toqueis*». Sozialistak pozik behetakoak egurtu arren, buruzagia errespetatzen zutelako. Justo de la Cueva eta Margarita Ayestarani egindako elkarrizketa. 1999ko urtarrilak 4.
15. Ibidem. 216., 221.-222. orrialdeak, 1976ko apirilean eta maiatzan kaleratutako agiriak.
16. Ibidem. 193. orrialdea, 1976ko urtarrila.
17. Ibidem. 260. orrialdea, 1976ko iraila.
18. Gaztelerazko izendapena: Junta Democrática eta Plataforma de Convergencia hurrenez hurren. Partaideak: PSOE, CCOO, Talde Independiente, Ezker Demokratikoa, MC, Alderdi Karlista, PCE, Alderdi Demokrata Herrikoa, Alderdi Sozialdemokrata, Alderdi Sozialista Herrikoa (PSP), Lanaren Alderdi Espainiarra, UGT eta Batasun Sozialdemokrata Espainiarra.
19. Ibidem. 41., 42., 43. orriak.
20. Ibidem. 46. orria.
21. Ibidem. 117. orria.
22. Ibidem. 138 orria.
23. Ibidem. 206 orria.
24. Ibidem 241, 242,423 orriak.
25. Ibidem. 254. orria.
26. Ibidem. 286. orria.
27. Ibidem. 287 orria.
28. Ibidem. 297 orria.
29. Ibidem. 293 orria.
30. Ibidem. 297 orria.
31. PSOEren XXVII. biltzarrean izan ziren, besteak beste, Willy Brandt, Internazional Sozialistako burua, Olof Palme suediarra, Daniel Mayer eta Francois Mitterrand frantziarrak, Pietro Nenni italiarra, Anselmo Sules txiletarra eta Michael Foot Erresuma Batuko laborista.
32. *XXVII Congreso PSOE*. Edición a cargo de Alfonso Guerra. Avance, 1977.
33. Felipe González, Ramón Rubial, Alfonso Guerra, Enrique Múgica, Luis Yáñez, Guillermo Galeote, Javier Solana, Eduardo López, Jose M^o Benegas, Carmen García, Joseph Albinjana, Luis G. Llorente, Nicolás Redondo, Antonio Miralles, Jose M^o Triginer eta Miguel Boyer ziren Batzorde Eragileko kideak.
34. PSOEko kide zaharrenei ezaguna zitzairen jokabide hau, izan ere Guda Zibila hasi orduko Falangeko zenbait kidek bere izena eman zuten CNTn, Madrid indar errepublikarren eskutan izanik heuren burua salbu jartzeko. Faxisten menpe zeuden lurraldetan alderantzizko fenomenoak gertatu zen, eta 1977an PSOE legezatu orduko, alderdi sozialistari egokitu zitzaion txanda. Aurreikusten zen etorkizun aldakorrari PSOEek maiz luzatuta zion publiko-ki errepresioaren erantzunkizunak ordainarazteko konprometua, beste gauza batzuen artean. Barrionuevo bera karlista zen PSOEren buruzagi bihurtu aurretik.
35. Jose Félix Tezanos, *Sociología del socialismo español*. Madrid, Editorial Tecnos, 1983, 91 orria.

NOTAS

36. Richard Gubther, Giacomo Sani y Golde Shbad: *El sistema de partidos políticos en España*. Madrid, Centro de Investigaciones Sociológicas, 1986. 181. orria.
37. Caciagli, Mario: *Elecciones y partidos en la transición española*, Madrid, Centro de Investigaciones Sociológicas, 1986. 210. orria.
38. Biltzararen bigarren zatira lehenengora baino kide gutxiago joan arren, bertan izandako delegatuen %83ak ardura eserleku bat estaltzen zuen; %17'2 parlamentarioak ziren, %13'1 alkateak eta %26'9 zinegotziak. Gainontzekoak, nazio, lurralde edo herrialdeko batzordeetako kideak ziren. Eta kontutan izanda kideen %49ak senitar-teko bat duela alderdian, Justo de la Cueva ondozotzatzen du militanten erdiak PSOE alderdian duela diru iturri nagusia. De la Cueva. Justo: «El PSOE de Felipe González 1974-1988: del Socialismo revolucionario marxista al neofranquismo sociológico», en *Euskadi, la renuncia del PSOE*, Txalaparta argitaletxea, 195. orria.
39. *Punto y Hora de Euskal Herria*, 1978, apirilak 20-26.
40. *Punto y Hora de Euskal Herria*, 1977ko uztailak 28-abuztuak 2.
41. *Ibidem*. 1978ko ekainak 22-28.
42. *Ibidem*. 1978ko ekainak 29-uztailak 5.
43. *Ibidem*. 1978ko abuztuaren 10-16ko aleko orrietan aipatua.
44. *El Socialista*, 1978ko uztailak 23.
45. Itzulpen zaileko hitza denez, jatorrizko izendapena jaso da.
46. *El Socialista*, 1978ko uztailak 9.
47. *Ibidem*. 1978ko urriak 2.
48. *Espala* aldizkaria, 1 znb, 1996.
49. *Ibidem*. 1978ko uztailak 23.
50. *Ibidem*. 1977ko uztailak 3.
51. *Ibidem*. 1977ko uztailak 10.
52. *Ibidem*. 1977ko uztailak 31.
53. *Ibidem*. 1977ko uztailak 10.
54. *Ibidem*. 1977ko urriak 23.
55. *Ibidem*. 1977ko uztailak 17.
56. *Ibidem*. 1977ko azaroak 6.
57. *Egin*, 1978ko maiatzak 2.
58. *Ibidem*. 1978ko urriak 10.
59. *Punto y Hora de Euskal Herria*, 1978ko apirilak 20-26.
60. *Punto y Hora de Euskal Herria*, apirilak 20-26.
61. *Ibidem*. 1977ko urriak 2.
62. *Ibidem*. 1978ko uztailak 23.
63. *Punto y Hora de Euskal Herria*, 1978ko uztailak 6-12.

BIBLIOGRAFIA

- AGUILA, Rafael del: *El discurso político de la transición española*, Madrid, Centro de Investigaciones Sociológicas, Título IV, Serie Monográficos.
- AZURMENDI, Joxe: *PSOE eta euskal abertzaletsuna*. Lur argitaletxea, Donostia.
- BENEGAS, José María y Valentín DÍAZ: *Partido Socialista de Euskadi*, PSOE. Luis Haranburu editor, col. Hemen n. 5.
- BLAS GUERRERO, Andrés de: «El problema nacional en los programas del PSOE y del PCE». *Nueva época, revista de estudios políticos*, n. 4. Centro de Estudios Constitucionales, julio-agosto, 1978, pp. 155-170.
- CACIAGLI, Mario: *Elecciones y partidos en la transición española*, Madrid, Centro de Investigaciones Sociológicas, 1986.
- Congresos del PSOE en el exilio*. Volumen II. Archivos históricos. Editorial Pablo Iglesias, Madrid, 1981.
- DE LA CUEVA, Justo: «Socialistas, comunistas, anarquistas e izquierda abertzale en los últimos ciento once años 1885/1995 de lucha de clases en Euskal Herria Sur». Ponencia del Curso de IPES: *100 Urte Euskal Herrian. Desarrollo Nacional y Social en el Siglo XX*. 25 de septiembre de 1995, Iruñea.
- DE LA CUEVA, Justo: *Metamorfosis nazi-fascista del Estado español*. Justo de la Cueva, Lizarra, 1981.
- EGUIGUREN, Jesus M.: *El P.S.O.E. en el País Vasco*, San Sebastián, Haranburu Editor, 1984.
- El socialismo en España*. Anales de la Historia, volumen I, Ed. Pablo Iglesias, Madrid, 1986.
- ERKIZIA, Tasio, Martín GARITANO, Esteban BAIGORRI, Jose Luis CERECEDA, José Antonio EGIDO, Justo DE LA CUEVA: *Euskadi, la renuncia del PSOE*. Txalaparta argitaletxea, Bilbo, 1988.

- Escuela de Verano del PSOE*, Cuadernos Para el Diálogo, Madrid, 1976.
- Ezpala* aldizkaria, 1, 5, 9 eta 10 zenbakiak.
- FUSI, Juan Pablo: *Pluralismo y nacionalidad*, Alianza Editorial, Madrid, 1984.
- FUSI, Juan Pablo: *Política obrera en el País Vasco (1880-1923)*, Madrid, Ediciones Turner, 1975.
- GILLESPIE, Richard: *Historia del Partido Socialista Obrero Español*. (Versión española de Fernando Santos Fontenla), Alianza Editorial, Madrid, 1991.
- GÓMEZ LLORENTE, Luis: «En torno a la ideología política del PSOE». *Zona Abierta* 20, 1979.
- GÓNZALEZ MÁRQUEZ, Felipe: *España y su futuro*. Cuadernos Para el Diálogo, Madrid, 1978.
- GUBTHER, Richard, Giacomo SANI y Golde SHBAD: *El sistema de partidos políticos en España*, Madrid, Centro de Investigaciones Sociológicas, 1986.
- JIMENO JURIO, Jose María: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Txalaparta argitaletxea, Tafalla, 1997.
- La Transición democrática en España*. *Sistema*, n. 68-69, Madrid, 1985.
- Le Socialiste*, *El Socialista* aldizkaria, editado por el Partido Socialista Obrero Español. 1970eko martxoaren 5etik 1979ko urtarrila arte.
- MARAVALL, José María: *La política de la transición 1975-1980*, Madrid, Taurus, 1981.
- MARTÍNEZ DE SAS, M. T.: *El Socialismo y la España oficial. Pablo Iglesias diputado a cortes*. Madrid, Teicar, 1975.
- Nacionalismo y socialismo en Euskadi*. Cuadernos de formación, IPES, Bilbao, 1984.
- NADAL, Jordi: *La población española. Siglos XVI a XX*. Barcelona, 1966.
- PEYDRO, Miguel: *Las escisiones del PSOE, 1921, 1972*, Plaza & Janés S.A., Esplugas de Llobregat, 1980.
- PSOE: la ruptura democrática*, PSOE, Secretaria de Información y Prensa, 1976.
- Punto y Hora de Euskal Herria* aldizkaria, Equipo Informativo S.A., Iruñea. 1976ko apirilaren 1etik 1978ko uztailaren 6ra.
- REDERO SAN ROMAN, Manuel: *Transición a la democracia y poder político en la España postfranquista (1975-1978)*. Salamanca, Librería Cervantes, 1993.
- RODRÍGUEZ DÍAZ, Angel: *Transición política y consolidación constitucional de los partidos políticos*. Madrid, Centro de Estudios Constitucionales, 1989. Serie Estudios Políticos, Título IV.
- TEZANOS, Jose Félix: *Sociología del socialismo español*. Madrid, Editorial Tecnos, 1983.
- TUÑÓN DE LARA, Manuel: *Transición democrática (1973-1985)*. Labor, Barcelona, 1991.
- TUSELL, Javier y Alvaro SOTO, *Historia de la Transición (1975-1986)*. Alianza editorial, Madrid, 1996.
- VARELA DÍEZ, Santiago: *El problema regional en la Segunda República Española*. Madrid, Unión Editorial S.A., 1976
- XXVII Congreso PSOE. Edición a cargo de Alfonso Guerra, Barcelona, Avance, 1977.
- XXVII Congreso, *Memoria de Gestión de la Comisión Ejecutiva. Informe de la Comisión Ejecutiva al Congreso. Informes elaborados a instancias del Comité Nacional*. PSOE, Madrid, 1976.
- XXVII Congreso, *memoria de gestión de la Comisión Ejecutiva. Propuestas de las Federaciones y Secciones*. PSOE, Madrid, 1976.
- ZIEGLER, Jean: *Viva el poder, crítica a la razón de Estado*. Madrid, Iepala, 1987.

RESUMEN

El objetivo principal de este artículo es analizar el cambio profundo llevado a cabo por el PSOE en lo relativo al reconocimiento del sujeto político en relación con la ordenación territorial y estructura político jurídico democrática del Estado español dentro del proceso transitorio que dio lugar a la Constitución actual.

LABURPENA

Berrogei urteko diktaudra bukatu ondoren eta gaur indarrean dirauen Konstituzioaren arteko «transizio» izenez ezaguna zaigun aroan PSOEk Estatu espainiarraren lurralde antolaketa eta egitura politiko-juridiko demokratiko baten sujeto politikoaren aitopenean izandako aldaketa sakona aztertzea da lan honen xede nagusia.

ABSTRACT

The main aim of this article is to investigate the profound change in the PSOE's policy as regards the recognition of political capacity when deciding territorial ordenation and political and judicial structure. The period under investigation is the time of transition from the end of forty years of dictatorship to the Constitution in place today.